

**EMAKUMEAK
DISKRIMINATZEKO EDOZEIN
ERA SAIHESTEKO
KONBENTZIOA ETA
HAUTAZKO PROTOKOLOA**



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

GIDALIBURUA

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

9

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

VITORIA - GASTEIZ 2000

EMAKUMEAK
DISKRIMINATZEKO EDOZEIN
ERA SAIHESTEKO
KONBENTZIOA ETA
HAUTAZKO PROTOKOLOA

IZENBURUA:	"Emakumeak Diskriminatzeko Edozein Era Saihesteko Konbentzioa eta Hautazko Protokoloa"
EGILEA:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier kalea, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
MAKETATZAILEA ETA KOORDINATZAILEA:	Ana Rincón
DATA:	Urria, 2000
ALE ZENBAKIA:	2.000
DESKRIBATZAILEAK:	Diskriminazioa, berdintasunerako politikak, Nazioarteko Hitzarmenak, azterketak
IRUDI DISEINUA:	Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
ILUSTRATZAILEA:	Iñigo Ordozgoiti
FOTOMEKANIKA:	Esda Fotocomposición. Hurtado de Amézaga, 27. Bilbao
INPRIMAKETA:	Grafo, S.A. Cervantes Etorbidea, 51. 48.970 Basauri. Bilbao
LEGE GORDAILUA:	BI-2554-00

AURKIBIDEA

AURKEZPENA 7




SARRERA 11

EMAKUMEAK DISKRIMINATZEKO EDOZEIN ERA SAIHESTEKO
KONBENTZIOA 17

EMAKUMEAK DISKRIMINATZEKO EDOZEIN ERA SAIHESTEKO
KONBENTZIOAREN HAUTAZKO PROTOKOLOA 35

HAUTAZKO PROTOKOLOAREN AZTERKETA 45

ZENBAIT ESTATUK HAUTAZKO PROTOKOLOARI BURUZ
EGINDAKO INTERPRETAZIO ADIERAZPENAK 73



AURKEZPENA

Sexuen arteko berdintasuna oinarritzko printzipio bezala aitortua izan da Nazioarteko, Europako eta Estatuetakoa arau juridiko guztietan. Hala ere, gauza bat da berdintasunerako eskubidea izatea eta beste bat eskubide hori errealitatean gauzatzea, eta horretarako ezinbestekoa da botere publikoek esku har dezaten emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egiazkoa eta eraginkorra lortu ahal izateko.

Alde horretatik, emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak kentzearen alde ONUk 1979an egin zuen Konbentzioan beste urrats bat gehiago eman zen emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak aurrera egin zezan, eta huraxe izan zen, hain zuzen ere, mundu osorako balioko zuen lehenbiziko tresna juridikoa, ekintza positiboak ez zirela diskriminatzaileak argi eta garbi aldarrikatu zuena. Eta sexuen arteko berdintasun printzipioa indargabetzen ez dutenez gero, argi dago ez direla diskriminatzaileak, beti ere denbora baterako baldin badira eta arlo guztietako berdintasun-ezak, politika, gizarte, ekonomi eta kulturaren arlokoak, zuzentzeko balio badute.

Xedapen hori zuzenean aplikatu daiteke berretsi egin duten Estatu guztietan, eta interpretazio iturri bezala erabili beharko da tratatu eta aukera berdintasunarekin lotzen diren proposamen guztietan. Ekintza positiborako neurriak berdintasuna lortzeko premiazko kasu guztietan jarri beharko dira.

Estatuek, hura berrestean, hitz eman dute emakumeen kontrako nolanahiko diskriminazioak deusezteko neurriak jarriko dituztela eta, Batzarraren xedapenek bere eragina izan dezaten, hartu diren neurrien berri emango dietela Nazio Batuei, bai eta arlo honetan izandako aurrerapausuen berri ere. Arau hau Espainiako Estatuak 1983ko abenduaren 16an berretsi zuen.

1999ko urrian, Konbentzio honi buruzko gertaera garrantzitsu bat izan genuen. Eztabaidaz, zailtasunez eta oztopoz beteriko hainbat urteren ondoren, Nazio Batuetako Biltzar Nagusiak onartu egin zuen emakumeak diskriminatzeko edozein era saihesteko Konbentzioaren Hautazko Protokoloa. Nazioartean emakumeen eskubideak babesteko bitartekoak indartzeko asmoa du protokolo horrek.

Gure Erkidegoaren eremuan, Euskadiko Autonomi Estatutuaren 9.2 artikuluan ezarri zen euskal botere publikoen eginkizuna dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zinezkoa eta egiazkoa izan dadin, diratekeen oztopoak erauzteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak hartzea.

Era berean, "Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboen III. Plana. Generoaren ikuspegia politika publikoetan" izenekoak, Eusko Jaurlaritzak 1999eko abenduaren 21an onetsi zuenak, 1979an ONUk egin zuen Batzarrean eta europar araudian oinarrituta, ekintza positiboa berretsi du, emaitzetan berdintasuna ezartzeko estrategia bezala, horren bidez, denboraldi baterako bederen gizartean izaten diren praktiken —batzuetan itxuraz neutralak— eta genero sistema sozialaren haritik sortzen diren diskriminazioak zuzentzeko edo horiei aurre egiteko.


Planean proposatutako neurriei legezkotasuna eta aurrera ateratzeko bidea ematen dieten bitarteko horiek ezagutarazteko asmoz, hain zuzen, argitalpen hau aurkeztu dugu. Gainera, Hautazko Protokoloa prestatzeko prozesua ere aztertzen du, Felipe Gómez Isa-ren eskutik. Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle dugu berau, eta Hautazko Protokoloa egin duen lan taldean parte hartu du.



Txaro Arteaga Arsa

EMAKUNDE/Emakumearen

Euskal Erakunde zuzendaria



SARRERA

Urrats handi bat eman zen 1979ko abenduaren 18an emakumeentzako eskubide berdintasunaren helbururantz, Batzar Orokorrak Emakumeak Diskriminatzeko Edozein era Saihesteko Konbentzioa onartu zuenean. Konbentzio honek, bere 30 artikuluetan, aldarrikatu egiten ditu, lege aldetik bete beharreko eran, mundu guztiak onartutako printzipioak eta emakumeek leku guztietan eskubide berdintasuna edukitzea lortzeko neurriak. Bere onarpenak amaiera eman zion egina zen kontsulta-lan bati, lantalde batzuen barruan, Emakumearen Gizarte eta Lege Egoerari buruzko Batzordean eta Batzar Orokorrean bost urtekoan egina zen kontsulta-lanari.

Konbentzio orokor honek eskubide berdintasuna eskatzen du emakumearentzat, bere egoera zibila gora-behera, esparru guztietan: esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilean. Nazioek diskriminazioa debekatzeko legeak aldarrikatzea eskatzen du; gizon eta emakumearen arteko berdintasuna bizkortzeko aldibaterako neurri bereziak gomendatzen ditu, bai eta diskriminazioa iraunarazten duten gizarte-kulturazko ereduak aldatzeko xedapenak ere.

Beste neurri batzuek emakumearentzako eskubide berdintasuna xedatzen dute bizitza politiko eta publikoan; hezkuntzara eta ikasketa programa berberetara iristeko aukera berdintasuna; diskriminaziorik eza enpleguan eta ordainketan, eta lan segurtasunaren bermeak ezkontza edo amatasuna gertatuz gero. Konbentzioak nabarmenarazi egiten du gizonari eta emakumeari etxe barruko bizitzan dagokien erantzukizun berdintasuna. Halaber, famili obligazioak lan erantzukizunekin eta bizitza publikoan parte hartzearekin konbinatzeko eskaini behar diren gizarte zerbitzuak ere -bereziki umeen zaintzari dagozkionak- azpimarratzen ditu.

Konbentzioaren beste artikulua batzuetan, emakumeari mediku-laguntzako zerbitzuak diskriminaziorik gabe eskaintzea eskatzen da, are familiaren plangintzari dagozkionak ere, eta gizonaren gaitasun juridiko berdina, Estatuak onartu behar dutelarik emakumearen gaitasun juridikoa mugatzera jo dezan edozein kontratari edo beste edozein tresna pribaturi «baliogabe iritziko zaiola». Arreta berezia emango zaie baserrialdeko emakumearen arazoei.

Konbentzioak Estatuak onarturiko obligazioak nazioarte mailan begiratzeko mekanismoak ezartzen ditu, Konbentzioa berretsi edo berari atxiki bazaizkio. Emakumearen aurkako Diskriminazioa Ezabatze Batzordeak, beren eginkizunetan beren buruen izenean soilik aritu eta Estatu kideek aukeratuak diren 23 adituk osaturik dagoenak, haren aplikazioan egiten diren aurrerapenak aztertzen ditu.

Konbentzioa, 1980ko martxoaren 1etik izenpetzeko irekia, 1981eko irailaren 3an sartu zen indarrean. 2000eko martxora arte, 165 herri onartu duten bere xedapenen betebeharra, berrespen edo atxikimendu bidez. Honako hauek dira herriok:

Albania	Austria
Alemania	Bahamak
Algeria	Bangladesh
Angola	Barbados
Antigua eta Barbuda	Belarrus
Argentina	Belgika
Armenia	Belize
Andorra	Benin
Australia	

Bhutan
Birmania
Boli Kosta
Bolivia
Bosnia-HertzeGovina
Botswana
Brasil
Britania Haundi eta
 Ipar Irlandako
 Erresuma Batua
Bulgaria
Burkina Faso
Burundi
Cabo Verde
Costa Rica
Danimarka
Djibuti
Dominika
Dominikar Errepublikak
Egipto
Ekuador
Ekuatore Ginea
El Salvador
Eritrea
Errumania
Errusiar Federazioa
Ertafrikar Errepublikak
Eslovakia
Eslovenia
Espainia
Estonia
Etiopia
Fiji
Filipinak
Finlandia
Frantzia
Gabon
Gambia
Gana
Georgia
Ginea
Ginea Bissau

Grenada
Grezia
Guatemala
Haiti
Hegoafrika
Herbehereak
Honduras
Hungaria
India
Indonesia
Irak
Irlanda
Islandia
Israel
Italia
Jamaika
Japonia
Jemen
Jordania
Jugoslavia
Kamerun
Kanada
Kanbodia
Kazakhstan
Kenia
Kirgizistan
Kolonbia
Komoreak
Kongo
Koreako Errepublikak
Kroazia
Kuba
Kuwait
Laosko Herri-Errepublikak
 Demokratikoa
Lesotho
Letonia
Libano
Liberia
Libia
Liechtenstein
Lituania

Luxemburg
 Madagaskar
 Malasia
 Malawi
 Maldivak
 Mali
 Malta
 Maroko
 Maurizio
 Mazedoniako Jugoslaviar
 Errepublikak-ohia
 Mexiko
 Moldovako Errepublika
 Mongolia
 Mozambique
 Namibia
 Nepal
 Niger
 Nigeria
 Nikaragua
 Norvegia
 Pakistan
 Panama
 Papua Ginea Berria
 Paraguai
 Peru
 Polonia
 Portugal
 Ruanda
 Saint Kitts eta Nevis
 Saint Vincent eta
 Grenadinak
 Samoa
 Santa Luzia
 Senegal
 Seychelleak
 Sierra Leona
 Singapur
 Sri Lanka
 Suedia
 Suitza
 Surinam

Tadjikistan
 Tanzaniako Errepublika
 Batua
 Thailandia
 Togo
 Trinidad eta Tobago
 Tunisia
 Turkia
 Turkmenistan
 Tuvalu
 Txad
 Txekiar Errepublika
 Txile
 Txinako Herri-Erepublika
 Uganda
 Ukraina
 Uruguai
 Uzbekistan
 Vanuatu
 Venezuela
 Vietnam
 Zaire
 Zantia
 Zeelanda Berria
 Zimbabwe
 Zipre

Konbentzioaren testu osoa hurrengo orrialdeotan ageri da.

2000ko ekainaren 12a bitarte, honako herrialde hauek dira Hautazko Protokoloa berretsi dutenak:

Danimarka
 Frantzia
 Namibia
 Senegal.

E MAKUMEAK
DISKRIMINATZEKO EDOZEIN
ERA SAIHESTEKO
KONBENTZIOA

Konbentzio honetako Estatu Kideek

Aintzat hartuta Nazio Batuen Sortze-Agiriak gizakiaren funtsezko eskubide, gizakiaren duintasun eta balio eta gizon eta emakumearen eskubide berdintasunarekiko fedea birbaiezen duela,

Aintzat hartuta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak diskriminaziorik ezaren printzipioa birbaieztu eta gizaki guztiak libre eta duintasun eta eskubideetan berdin jaiotzen direla eta pertsona orok Adierazpen horretan aldarrikatzen diren eskubide eta askatasun guztiak, inolako bereizketarik gabe, eta, ondorioz, sexu bereizketarik gabe, eska ditzakeela aldarrikatzen duela,

Aintzat hartuta Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Itunetako Estatu Kideek gizonari eta emakumeari eskubide politiko, sozial, kultural, zibil eta ekonomikoen gozamen berdintasuna bermatu behar dietela,

Kontuan izanik, gizon eta emakumearen arteko eskubide berdintasuna bultzatzeko xedez, Nazio Batuen eta erakunde espezializatuen babespean hitzartutako nazioarteko konbentzioak,

Kontuan izanik halaber Nazio Batuek eta erakunde espezializatuek, gizon eta emakumearen arteko eskubide berdintasuna bultzatzeko xedez, onartutako erabaki, adierazpen eta gomendioak,

Kezkaturik, ordea, tresna ezberdin hauek gora-behera, emakumeek diskriminazio garrantzitsuak jasaten jarraitzen dutela ikusterakoan,

Gogoraziz emakumearen kontrako diskriminazioak eskubide berdintasunaren eta giza duintasunaren errespetua hausten dituela, emakumeak bere herriko politika, gizarte, ekonomi eta kultur bizitzan, gizonaren baldintzetan euren, esku hartzea galarazten duela, gizartearen eta familiaren ongizatea gehitzeko eragozpena dela eta emakumearen ahalbi-deak, bere herriari eta gizateriari zerbitzu egitekoak, oztopatzen dituela,

Kezkaturik, pobrezia egoeretan, emakumeak elikadura, osasun, irakaskuntza, gaikuntza eta enplegu aukeretara nahiz beste beharrian batzuk betetzera iristeko duen aukera oso urria delako,

Sinistuta, berdinkidetasunean eta justizian oinarritutako nazioarteko ekonomi antolaketa berria ezartzeak gizon eta emakumearen arteko berdintasuna bultzatzeko nabarmenki lagunduko duela,

Azpimarratuz bereizkeria (apartheid), arrazakeria, arrazako diskriminazio, atzerritar kolonialismo, neokolonialismo, eraso, okupazio eta dominazio era guztiak nahiz Estatuen barne arazoetan eskusartzea ezabatzea ezinbestekoa dela gizonaren eta emakumearen eskubideen bete-beteko gozamena izateko,

Baieztatuz nazioarteko bake eta segurtasuna indartzea, nazioarteko tentsioa arintzea, Estatu guztien arteko lankidetzaren euren ekonomi eta gizarte sistemak gora-behera, nazioarteko kontrol hertsia eta egiazkoaren menpeko desarme orokor eta osoa eta, zehazki, desarme nuklearra, justizia, berdintasuna eta elkarren onura herrien arteko harremanetan eta dominazio kolonial eta atzerritarraren menpeko herrien burujabetasun aske eta independentziaren eskubidea erabiltzea, eta nazioen subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren errespetua, gizarte aurrerapen eta garapenaren bultzagarri eta, ondorioz, gizonaren eta emakumearen arteko bete-beteko berdintasuna lortzeko lagungarri izango direla,

Sinistuta emakumearen partaidetzarik handiena, alor guztietan eta gizonaren baldintza berdinetan, ezinbestekoa dela herri baten garapen betea eta osoa, munduko ongizatea eta bakearen helburua lortzeko,

Gogoan izanik emakumeak familiaren ongizaterako eta gizartearen garapenerako egiten duen ekarpen handia, orain arte guztiz aitorturik ez dagoena, amatasunaren garrantzi soziala eta gurasoek familian eta seme-alaben hezkuntzan betetzen duten eginkizuna, eta jabeturik gaudela emakumeak ugalketan duen eginkizuna ez dela diskriminaziorako arrazoi izan behar, baizik eta umeen hezkuntzak gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna, eta gizarte osoarena, behar duela,

Aitorturik gizon eta emakumearen arteko bete-beteko berdintasuna lortzeko aldatu egin behar dela gizonak nahiz emakumeak gizartean eta familian duten ohizko eginkizuna,

Erabakita emakumearen kontrako diskriminazioaren ezabapenari buruzko Adierazpenean aldarrikatzen diren printzipioak aplikatzera eta, horretarako, diskriminazio hau bere era eta agerpide guztietan ezabatzeko behar izan daitezen neurriak hartzera,

Hurrengoak erabaki dute:

I. ZATIA

1. artikulua

Konbentzio honi dagokionean, «emakumearen kontrako diskriminazioa» esapideak, sexuan oinarritutako edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa adierazten du, hots, emakumeari, bere egoera zibila gora-behera eta gizon eta emakumearen berdintasuna oinarri, esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilean edo beste edozeinetan, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen aitormena, gozamenaren edo erabilera gutxitu edo ezeztatze helburuz edo emaitzaz egindakoa.

2. artikulua

Estatu Kideek gaitzetsi egiten dituzte emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak, emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatze politikak bat, bide egokietatik eta luzatu gabe, jarraitzea erabaki eta, horretarako, gain hartzen dute honako hau:

a) Gizon eta emakumearen arteko berdintasunaren printzipioa finkatzea, oraindik egin ez badute, beren nazio konstituzioetan eta beste edozein legeria egokitan, eta, lege bidez edo bestelako bide egokietatik, printzipio honen gauzatze praktikoa segurtatzea;

b) Emakumearen kontrako edozein diskriminazio debekatzen duten neurri egokiak hartzea, legegintzazkoak eta bestelakoak, dagozkien zehapenekin;

c) Emakumearen eskubideen babes juridikoa ezartzea, gizonenakiko berdintasunean oinarriturik, eta nazioko auzitegien edo eskudunen bitartez eta bestelako erakunde publikoen bitartez, emakumearen benetako babesa bermatzea edozein diskriminazio egintzaren aurka;

d) Emakumearen aurkako inolako diskriminazio egintzarik edo praktikarik ez egitea eta agintari eta erakunde publikoek betebeharrak honi atxikiz jardun dezaten arduratzea;

e) Edozein pertsona, erakunde edo enpresak emakumearen kontra egindako diskriminazioa ezabatze beharrezko neurriak hartzea;

f) Emakumearen kontrako diskriminazioa egin dezaten lege, araudi, erabilera eta praktikak aldatu edo indargabetzeko beharrezko neurriak hartzea, are legegintzazkoak ere;

g) Emakumearen kontrako diskriminazioa egin dezaten nazioko zigor-xedapen guztiak indargabetzea.

3. artikulua

Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, are legegintzazkoak ere, esparru guztietan, eta bereziki esparru politiko, sozial, ekonomiko eta kulturaletan, emakumearen garapen eta aurrerapen osoa segurtatzeko, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen erabilera eta gozamena gizonaren baldintza berdintasunez bermatzeko xedez.

4. artikulua

1. Estatu Kideek, gizonaren eta emakumearen arteko benetako berdintasuna bizkortzeko, aldibaterako neurri bereziak hartzeari ez zaio diskriminazio iritziko Konbentzio honetan definituriko eran, baina ez du inola ere, bere ondorioz, arau ezberdin edo bereziei eusterik ekarriko; neurri hauek amaitu egingo dira aukera eta tratu berdintasunaren helburuak lortutakoan.

2. Estatu Kideek amatasuna babesteko neurri bereziak, are Konbentzio honetan biltzen direnak, hartzeari ez zaio diskriminazio iritziko.

5. artikulua

Estatu Kideek honako hauetarako neurri egoki guztiak hartuko dituzte:

a) Gizon eta emakumeen portaera eredu soziokulturalak aldatzekoak, sexueta baten gutxiagotasun edo gehiagotasunaren ideian nahiz gizonei eta emakumeei egoten zaizkien eginkizun estereotipuetan oinarritzen diren ohizko aurriritzi eta praktikak ezabatzeko helburuz;

b) Famili hezkuntzan amatasunaren gizarte funtzioa behar bezala ulertzea eta gizonek zein emakumeek seme-alaben hezkuntza eta garapenari dagokionean duten erantzunkidetasuna onartzea bermatzekoak, seme-alaben interesa kasu guztietan ardura behinena izango delako ustean.

6. artikulua

Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, are legegintzazkoak ere, emakumeen tratu eta emakumearen prostituzioaren ustiapen era guztiak ezabatzeko.

II. ZATIA

7. artikulua

Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, herriko bizitza politiko eta publikoan, emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeke eta, zehazki, honako hauetarako eskubidea bermatuko diete gizonekiko baldintza berdintasunean:

- a) Hauteskunde eta referendum publiko guztietan boto ematekoa eta organismo guztietarako hautagai izatekoa, hauetako kideak hauteskunde publikoen gai direnean;
- b) Gobernuen politiken formulazio eta burutzapenean parte hartzekoa eta kargu publikoak eduki eta gobernu-maila guztietako funtzio publiko guztietan aritzekoa;
- c) Herriko bizitza publiko eta politikoan aritzen diren gobernuez kanpoko erakunde eta elkarteetan parte hartzekoa.

8. artikulua

Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte emakumeari, gizonarekiko baldintza berdintasunean eta inolako diskriminaziorik gabe, bere gobernua nazioarteko mailan ordezkatzeko eta nazioarteko erakundeen zereginean esku hartzea bermatzeko.

9. artikulua

1. Estatu Kideek gizonen eskubideak eurak emango dizkiete emakumeei beren naziotasuna hartu, aldatu edo kontserbatzeko. Bermatu egingo dute, zehazki, atzerritar batekin ezkontuta egotearen edo, senar-emazte barruan, senarrak bere naziotasuna aldatzearen ondorioz, emaztea automatikoki bere naziotasuna aldatu, aberrigabe bihurtu edo ezkontidearen naziotasuna hartzera beharturik ez gotea.

2. Estatu Kideek gizonaren eskubideak eurak emango dizkiote emakumeari seme-alaben naziotasunari dagokionean.

III. ZATIA

10. artikulua

Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeke, hezkuntzaren esparruan gizonaren eskubide berberak segurtatzeko xedez eta, zehazki, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, honako hauek segurtatzeko:

a) Orientazio baldintza berberak karrera eta lanbide gaikuntzaren gaietan, ikasketetara iristea eta diplomak lortzea, kategoria guztietako irakaskuntza erakundeetan, base-rrialdeetan nahiz hirialdeetan; berdintasun hau segurtatu beharko da eskolaurreko irakaskuntzan, orokorrean, teknikoan eta lanbidezkoan, goi hezkuntza teknikoa barne, eta bai lanbide gaikuntza mota guztietan ere;

b) Ikasketa programa berberetara eta azterketa berberetara iristeko aukera, lanbide maila bereko irakasleak eta kalitate bereko eskola lokalak eta hornidurak;

c) Gizonaren eta emakumearen eginkizunei buruzko kontzeptu estereotipatu guztiak ezabatzea, irakaskuntzako maila eta era guztietan, hezkuntza nahasia eta helburu hau lortzeko lagungarri izan daitezen bestelako hezkuntza motak bultzatuz eta, zehazki, eskola liburuak eta programak aldatuz eta irakaskuntza metodoak egokituz;

d) Ikasketak egiteko bekak eta bestelako dirulaguntzak lortzeko aukera berdintasuna;

e) Hezkuntza osagarriaren programetara iristeko aukera berdintasuna, alfabetatze funtzionalaren eta helduentzakoaren programetara barne, gizonaren eta emakumearen arteko ezagupen-diferentzia ahalbait lasterren gutxitzeari begira;

f) Emakumeen ikasketa-utzieraren tasa gutxitzea eta ikasketak garaiz aurretik utzi dituzten andre gazte eta helduentzako programak antolatzea;

g) Kiroletan eta gorputz hezkuntzan era ekinkorrez esku hartzeko aukera berdintasuna;

h) Familiaren osasuna eta ongizatea segurtatzeko laguntzen duen informazio berezira iristea, familiaren plangintzari buruzko informazio eta aholkua barne.

11. artikulua

1. Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte enpleguaren esparruan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan eskubide berberak eta, zehazki, honako hauek segurtatzeko xedez:

a) Lanerako eskubidea, gizaki ororen eskubide alienaezina den aldetik;

b) Enplegu aukera berberetarako eskubidea, enplegutik hautespenean irizpide berberak aplikatzeko arabe;

c) Lanbidea eta enplegua askatasunez aukeratzeko eskubidea, enpleguan igotzeko, egonkortasuna edukitzeko eta prestazio eta gainerako zerbitzu baldintza guztietarako eskubidea, eta lanbide hezkuntza eta birtrebatuntzara iristeko eskubidea, ikasketa, goi lanbide-prestatuntza eta aldirikako trebatuntzarako arabe;

d) Ordainketa eta prestazio berdinetarako eta tratu berdintasunerako eskubidea balio bereko lanari dagokionean, bai eta tratu berdintasunerako eskubidea lanaren kalitatearen ebaluazioari dagokionean ere;

e) Gizarte segurantzarako eskubidea, zehazki, jubilatze, langabezia, gaixotasun, elbarritasun, zahartze edo lan egiteko bestelako ezigaitasunen kasuetan, bai eta ordaindutako oportetarako eskubidea ere;

f) Osasunaren babeserako eta lan baldintzetako segurantzarako eskubidea, ugalketa funtzioaren zaintzarako arabe.

2. Ezkontza edo amatasuna dela-eta, emakumearen kontrako diskriminazioa galarazteko eta lan egiteko duen eskubidearen eragingarritasuna bermatzeko, Estatu Kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte:

a) Haurdunaldi edo amatasun-lizentziaren ziozko kanporaketa eta, kanporaketetan, egoera zibilaren ziozko diskriminazioa debekatzeko, zehapen zigorpean;

b) Amatasun-lizentzia ezartzeko, soldata ordainduarekin edo prestazio sozial parekagarriekin, aurretiko enplegua, aintzinasuna edo onura sozialak galdu gabe;

c) Laguntzazko zerbitzu sozialak bultzatzeko, gurasoek familiarekiko erantzukizunak lanaren erantzukizunekin eta bizitza publikoan parte hartzearekin konbinatu ahal ditzaten, bereziki haurren zaintzarako zerbitzu-sare baten sorkuntza eta garapenaren bitartez;

d) Emakumei haurdunaldian arreta berezia eskaintzeko, berarentzat kaltegarri gerta daitezkeela frogaturik dauken lan motetan.

3. Artikulu honetan biltzen diren gaiei buruzko babeslegeria aztertzea izango da aldirian-aldian zientzi eta teknologia ezagutzen argitan eta berrikusi, indargabetu edo zabaldua izango da, dagokionaren arabera.

12. artikulua

1. Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte mediku-laguntzaren esparruan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, mediku-laguntzako zerbitzuetara iristea bermatzeko xedez, are familiaren plangintzari dagozkionetara ere.

2. Aurreko 1. lerroaldean xedatzen denaren kaltetan gabe, Estatu Kideek haurdunaldi, erditzaldi eta erditondoko aldiarekiko zerbitzu egokiak bermatuko dizkiote emakumeari, doako zerbitzuak eskainiz behar direnean, eta elikadura egokia segurtatuko diote haurdunaldian eta edoskitzaroan.

13. artikulua

Estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte ekonomi eta gizarte bizitzaren beste esparru batzuetan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, eskubide berberak bermatzeko xedez, zehazki:

- a) Famili prestazioetarako eskubidea;
- b) Banka maileguak, hipotekak eta bestelako finantza kredituak lortzeko eskubidea;
- c) Jolas jarduketetan, kiroltan eta kultur bizitzaren alderdi guztietan parte hartzeko eskubidea.

14. artikulua

1. Estatu Kideek kontuan izango dituzte baserrialdeko emakumeak aurre egin behar dien arazo bereziak eta bere familiaren biziraupenean betetzen duen eginkizun garrantzitsua, ekonomiaren sektore ez-monetarretan egiten duen lana barne, eta beharrezko neurriak hartuko dituzte Konbentzio honetako xedapenak baserrialdeetako emakumeari aplikatzen zaizkiola bermatzeko.

2. Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte baserrialdeetan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, landa-garapenean eta onuretan, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, parte hartzen duela segurtatzeko xedez, eta, zehazki, honako hauetarako eskubidea bermatuko diote:

- a) Maila guztietako garapen planen gertaketan eta buruzapenean parte hartzekoa;
- b) Mediku-laguntzazko zerbitzu egokietara, are familieren plangintzari buruzko informazio, aholku eta zerbitzuetara ere, iristekoa;
- c) Gizarte segurantzaren programen onura zuzenean jasotzekoa;
- d) Hezkuntza eta prestakuntza mota guztiak, akademiakoak eta ez-akademikoak, hartzekoa, alfabetatze funtzionalari dagozkionak barne, eta komunitateko eta dibulgaziozko zerbitzu guztien onurak, besteak beste, jasotzekoa ere, bere gaitasun teknikoa gehitzeko xedez;
- e) Elkarlaguntza taldeak eta kooperatibak antolatzekoa, norbere konturako edo besteren konturako enpleguaren birtartez ekonomi aukeretara iristeko berdintasuna izateko xedez;
- f) Komunitatearen jarduera guztietan parte hartzekoa;
- g) Nekazaritza arloko kreditu eta maileguetara, merkaturatze zerbitzuetara eta teknologia egokietara iristekoa, eta nekazal erreforma eta berrezarrera planetan tratu berdina jasotzekoa;
- h) Bizitza baldintza egokiak edukitzekoa, bereziki etxebizitzaren, osasun-zerbitzuen, elektrizitate eta ur horniduraren, garraio eta komunikabideen esparruetan.

IV. ZATIA

15. artikulua

1. Estatu Kideek gizonarekiko berdintasuna aitortuko diote emakumeari legearen aurrean.
2. Estatu Kideek gizonaren gaitasun juridiko berbera aitortuko diote emakumeari gai zibiletan, eta gaitasun hori erabiltzeko aukera berberak ere. Zehazki, kontratuak izenpetzeko eta ondasunak administratzeko eskubide berberak aitortuko dizkiote emakumeari, eta trataera berdina emango diote justiziako gorteetako eta auzitegi-tako prozedura-aldi guztietan.
3. Emakumearen gaitasun juridikoa mugatzen duen edozein kontratu edo eragin juridikodun beste edozein tresna pribaturi baliogabe iritziko zaiola onartzen dute Estatu Kideek.

4. Estatu Kideek eskubide berberak aitortuko dizkiete gizonari eta emakumeari, pertsonen askatasunez ibiltzeko eskubideari eta euren egoitza eta bizilekua aukeratzeko askatasunari buruzko legeriari dagokionean.

16. artikulua

1. Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko ezkontza eta famili harremanei dagozkien arazo guztietan eta, zehazki, honako hauek segurtatuko dituzte gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan:

- a) Ezkontzeko eskubide berbera;
- b) Ezkontidea askatasunez aukeratzeko eta bere erabakimen aske eta bere baimen osoaz soilik ezkontzeko eskubide berbera;
- c) Eskubide eta erantzukizun berberak ezkontza bitartean eta ezkontza desaginez gero;
- d) Eskubide berberak guraso diren aldetik, beren egoterra zibila dena dela, seme-alabekin zerikusia duten gaietan; seme-alaben interesak ardurarik behinena izango dira kasu guztietan;
- e) Seme-alaben kopurua eta jaiotzen arteko aldia askatasunez eta axolaz erabakitzekeo eskubide berberak, bai eta eskubide horiek erabili ahal izateko informazio, hezkuntza eta baliabideetara iristekoak ere;
- f) Eskubide eta erantzukizun berberak seme-alaben tutoretza, kuratela, zaintza eta adopzioari dagokionez, edo antzerako erakundeei dagokienez, kontzeptu hauek nazioko legerian agertzen diren guztietan; seme-alaben interesak ardurarik behinena izango dira kasu guztietan;
- g) Norberaren eskubide berberak senarra eta emaztea den aldetik, besteak beste, abizena, lanbidea eta ogibidea aukeratzeko eskubidea;

h) Ezkontide bakoitzarentzako eskubide berberak ondasunen jabetza, erosketa, kudeaketa, administrazio, gozamen eta erabilerari dagokionez, dohainez nahiz kostubidez.

2. Umeen ezkontitzek eta ezkontzak ez dute inolako eragin juridikorik izango eta beharrezko neurri guztiak hartuko dira, are legegintzazkoak ere, ezkontzeko gutxienezko adina finkatzeko eta ezkontza erregistro ofizial batean inskribatzea nahitaezkoa izan dadin.

V. ZATIA

17. artikulua

1. Konbentzio honen aplikazioan egindako aurrerape-nak aztertzeko, Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzorde bat ezarriko da (aurrerantzean Batzor-dea deitua). Batzorde hori, Konbentzioa indarrean sartzeko unean, prestigio moral haundiko eta Konbentzioak hartzen duen arloan gaitasun haundiko hamazortzi adituk osaturik egongo da eta, hogeita hamabostgarren Estatu Kideak be-rrespensa edo atxikimendua eman ondoren, hogeita hiru adi-tuk osaturik. Adituak Estatu Kideek beren nazionalen artetik aukeratuak izango dira, eta nor bere izenean arituko dira be-ren eginkizunetan; kontuan hartuko dira geografi banaketa berdinkide bat, zibilizazio era ezberdinen ordezkapena eta sistema juridiko nagusiak.

2. Batzordeko kideak Estatu Kideek izendatutako per-sonen zerrenda batetik hautetsiko dira bozketa sekretu bi-dez. Estatu Kide bakoitzak pertsona bat izendatu ahal izango du bere nazionalen artetik.

3. Lehen hauteskundera Konbentzio hau indarrean sar-tu eta sei hilabete igarotakoan egingo da. Hauteskunde ba-koitzaren data baino gutxienez hiru hilabete lehenago, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak gutun bat bidaliko die Estatu Kideei beren hautagai zerrendak bi hilabeteko epean aurkez ditzaten deia eginez. Idazkari Nagusiak era honetan izenda-tutako pertsona guztien zerrenda alfabetikoa prestatuko du, izendatu dituzten Estatu Kideak adierazita, eta Estatuko Kideei helaraziko die.

4. Idazkari Nagusiak deitu eta Nazio Batuen Egoitzan egingo den bilera batean hautetsiko dira Batzordeko kideak. Bilera honetan, bertako quoruma Estatu Kideen bi herenek osatzen dutela, Batzorderako hautetsizat emango dira botu-rik gehien eta Estatu Kide presente eta botu-emaileen ordezkarien botuen erabateko gehiengo atera dezaten hauta-gaiak.

5. Batzordeko kideak lau urtetarako hautetsiko dira. Alabaina, lehen hauteskundera hautetsitako kideetarik be-deratziren agintaldia bi urtebeteren buruan amaituko da; le-hen hauteskundera egin eta berehalaxe, Batzordeko Lehen-dakariak zozketa bidez hautatuko ditu bederatzi kide horien izenak.

6. Batzordeko bost kide gehigarrien hauteskundera arti-kulu honetako 2, 3 eta 4. lerroaldeetan xedatzen denari atxi-

kiz egingo da, hogeita hamabostgarren Estatu Kideak Konbentzioaren berrespena edo berarekiko atxikimendua eman ondoren. Aldi honetan hautetsitako kide gehigarrietarik biren agintaldia bi urtebeteren buruan amaituko da, bi kide hauek Batzordeko Lehendakariak zozketa bidez izendatuko dituela.

7. Ezustean gerta daitezen kargu hutsak betetzeko, Batzordeko kide-eginkizunak utzi dituen adituaren Estatu Kideak beste aditu bat izendatuko du bere nazionalen artetik, Batzordearen onarpenaren zain geratuko dena.

8. Batzordeko kideek, Batzar Orokorrak onarpena eman ondoren, Nazio Batuen fondoetatik jasoko dituzte lanordainak Batzarrak erabaki dezan modu eta baldintzetan, Batzordearen eginkizunen garrantzia kontuan hartuta.

9. Nazio Batuen Idazkari Nagusiak Batzordeak Konbentzio honen arabera dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzeko beharrezko pertsonala eta zerbitzuak zuzkituko ditu.

18. artikulua

1. Estatu Kideek behartu egiten dute beren burua, Konbentzio honetako xedapenak betetzeko eta alde honetatik egindako aurrerapenari buruz hartuak dituzten legegintzazko, auzibidezko, administraziozko edo bestelako neurriei buruzko txosten bat Nazio Batuen Idazkari Nagusiari aurkeztera, Batzordeak azter dezan:

a) Dagokion Estatuarentzat Konbentzioa indarrean sartu eta urtebeteko epean, eta

b) Aurrerantzean, gutxienez lau urtebetez behin eta, gainera, Batzordeak eska dezan bakoitzean.

2. Txostenetan adierazi ahal izango dira Konbentzio honetan ezartzen diren beharkizunen betetze-neurriari daragioten faktore eta zailtasunak.

19. artikulua

1. Batzordeak bere araudia onartuko du.
2. Batzordeak bere Mahaia hautatuko du bi urtebeteko eperako.

20. artikulua

1. Batzordea urtero bilduko da normalean, Konbentzio honen 18. artikuluaaren arabera aurkeztuak zaizkion txostenak aztertzeko. Batzordearen bileren iraunaldia Konbentzio honetako Estatu Kideen bilkura batean finkatuko da eta Batzar Orokorraren onarpenaren menpe jarriko.

2. Batzordearen bilerak normalean egingo dira Nazio Batuen Egoitzan edo Batzordeak erabaki dezan beste edozein leku egokitan.

21. artikulua

1. Batzordeak, Ekonomi eta Gizarte Kontseiluaren birtatez, bere jardueren berri emango dio urtero Nazio Batuen Batzar Orokorrari eta izaera orokorreko iradokizun eta gomendioak egin ahal izango ditu, Estatu Kideek helarazitako txosten eta datuen azterketan oinarrituak. Izaera orokorreko iradokizun eta gomendio hauek Batzordearen txostenen sartuko dira, egonez gero, Estatu Kideen oharpenekin batera.

2. Idazkari Nagusiak Batzordearen txostenak helaraziko dizkio Emakumearen Lege eta Gizarte Egoerari buruzko Batzordeari, honen informaziorako.

22. artikulua

Erakunde espezializatuak euren jardueren eremuari dagozkion Konbentzio honetako xedapenen aplikazioaren azterketan ordezkatu egoteko eskubidea izango dute. Batzordeak erakunde espezializatuak eskatu ahal izango die Konbentzioak euren jardueren eremuari dagozkion arloetan duen aplikazioari buruzko txostenak aurkeztea.

VI. ZATIA

23. artikulua

Konbentzio honetan xedatzen den ezerk ere ez du eragirik izango gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzera hobeto eraman eta hurrengo osatzen duen ezein xedapenetan:

- a) Estatu Kide baten legeria, edo
- b) Estatu horietan indarrean dagoen beste edozein nazioarteko konbentzio, itun edo hitzarmen.

24. artikulua

Estatu Kideek, Konbentzio honetan aitorturiko eskubideak bete-betean burutzeko, nazio mailan beharrezko izan daitezen neurri guztiak hartzeko konpromezua hartzen dute.

25. artikulua

1. Konbentzio hau Estatu guztiek izenpetzeko irekita egongo da.
2. Nazio Batuen Idazkari Nagusia izendatzen da Konbentzio honen gordailuzain.
3. Konbentzio hau berrespenari loturik dago. Berrespeneko tresnak Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan gordailatuko dira.
4. Konbentzio hau Estatu guztien atxikimendura irekita dago. Atxikimendua Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan atxikimendu tresna bat gordailatuz egingo da.

26. artikulua

1. Estatu Kideetako edozeinek Konbentzio honen berrikuspena eskatu ahal izango du noiznahi, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari zuzendutako jakinarazpen idatziaren bitartez.
2. Nazio Batuen Batzar Orokorrak erabakiko ditu eskabide horri buruz, hala badagozkie, hartu behar izan daitezen neurriak.

27. artikulua

1. Konbentzio hau indarrean sartuko da Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan hogeigarren berrespen edo atxikimendu tresna gordailatu dadin egunetik hasi eta hogeita hamargarren egunean.
2. Hogeigarren berrespen edo atxikimendu tresna gordailatua izan ondoren Konbentzioa berretsi edo berari atxiki dakion Estatu bakoitzarentzat, Konbentzioa indarrean sartuko da Estatu horrek bere berrespen edo atxikimendu tresna gordailatu duen egunetik hasi eta hogeita hamargarren egunean.

28. artikulua

1. Nazio Batuen Idazkari Nagusiak jaso eta jakinarazi egingo die Estatu guztiei, berrespen edo atxikimendua egiteko unean Estatuak adierazitako erreserben testua.

2. Ez da onartuko Konbentzio honen xede eta helburuarekin bateraezina izan dadin erreserbarik.

3. Edozein erreserba kendu ahal izango da edozein unetan Nazio Batuen Idazkari Nagusiari zuzendutako berarizko jakinarazpen baten bitartez, eta honek horren berri eman-gio die Estatu guztiei. Jakinarazpen honek eragina izango du jaso dadin unean.

29. artikulua

1. Bi Estatu Kideren edo gehiagoren artean, Konbentzio honen interpretazio edo aplikazioari buruz, sortu eta negoziatio bidez konpon ez dadin edozein eztabaida tartekarizaren menpe jarriko da haietako batek eskatuta. Sei hilabete-ko epean, tartekaritza eskearen aurkezpen egunetik kontatzen hasita, aldeak tartekaritza horren erari buruz ados jar-tzen ez badira, aldeetako edozeinek Nazioarteko Justizia Gortearen erabakipean jarri ahal izango du eztabaida, Gortearen Estatutuari atxikiz aurkeztutako eskabide baten bi-tartez.

2. Estatu Kide orok bere burua artikulua honen 1. lerro-aldeak dioenari lotzera beharturik ez dagoela aldarrikatu ahal izango du Konbentzio hau izenpetu edo berretsi edo be-rari atxikitzeko unean. Gainerako Estatu Kideak ez dira lerro-alde honek beharturik egongo erreserba hori egin duen ezein Estatu Kideren aurrean.

3. Artikulu honetako 2. lerroaldean aurrikusten den erreserba adierazia duen edozein Estatu Kidek atzera kendu ahal izango du noiznahi, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari ho-rren berri emanez.

30. artikulua

Konbentzio hau, bere testuak, arabiera, txinera, espaine-ra, frantses, ingeles eta errusieraz idatziak, orobat kautoak direla, Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan gordailatu-ko da.

HORREN LEKUKOTZA EMANEZ, azpian ageri direnek, behar bezala baimenduta, sinatu egiten dute Konbentzio hau.

EMAKUMEAK
DISKRIMINATZEKO EDOZEIN
ERA SAIHESTEKO
KONBENTZIOAREN
HAUTAZKO PROTOKOLOA

BATZAR OROKORRAK ONETSITAKO ERABAKIA (A/54/4) 1999KO URRIAREN 6A

Batzar Orokorra,

Vienako Ekitaldien Adierazpen eta Programa A/CONF.157/24 (Part I), III. kap. eta *Emakumeen IV. Mundu-konferentziako Adierazpen Txostena, Beijing, 1995eko irailaren 4tik 15era* (Nazio Batuen argitalpena, salmenta zkia.: S.96.IV.13), 1. kap., 1. erabakia, 1. eranskina eta Ekitntza Plataforma Ibid., Beijing-eko II. eranskina berretsiz,

Beijing-eko Ekitaldi Programan, eta Vienako Ekitaldien Adierazpen eta Programan xedatu-takoarekin bat etorritik, Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeak hasi zuen proze-suaren alde jokatu zela gogorarazten du Emakumeak diskriminatzeke edozein era saihesteko Konbentzioaren Hautazko Protokoloaren proiektua idazteko asmoz: eskakizun-eskubidearekin zerikusia duen prozeduraren gainean, 34/180 Erabakia, eranskina, indarrean ahalik eta azka-rren jarriko litzatekeela gogoraraziz,

2000. urterako Konbentzioaren berrespen unibertsala lortzea zilegi izan zedin, Beijing-eko Ekitaldien Plataforman ere, Konbentzioa berretsi ez zuten Estatu guztiei hura berrets zezaten edo harekin lehenbailehen bat egin zezaten deia egin zitzailela kontuan hartuz,

1. Konbentzioaren Hautazko protokoloa onetsi du eta hura sinatzeko, berresteko eta hare-kin bat egiteko ireki du; Protokoloaren testua erabakiaren eranskin gisa agertzen da;

2. Konbentzioa sinatu, berretsi nahiz harekin bat egin duten Estatu guztiei Protokoloa sinat-zeko eta berresteko edo ahalik eta azkarren harekin bat egiteko agindu die;

3. Protokoloko Estatu parte-hartzaileek Protokoloan aurreikusitako eskubide eta prozedurak errespetatzeko konpromisoa hartuko dutela eta Emakumeen aurkako Diskriminaziorako Batzordearekin elkarlanean aritu beharko dutela azpimarratzen du Protokoloaren alde egiten diren etapa guztietan;

4. Halaber, bere agintea eta funtzioak betetzerakoan Protokoloaren alde, Batzordeak hau-tazkotasan eza, inpartzialtasun eta objektibotasun printzipioen arabera jokatu beharko duela azpimarratzen du;

5. Batzordeari, Konbentzioko 20. artikulua arabera egin beharreko bilerez gain, Protokoloa indarrean jarri ondoren, Protokoloaren alde bere funtzioak betetzeko bilerak egin ditzala eskatzen dio; bilera horiek iraupen jakin bat izango dute baina, hala behar izanez gero, Protokoloko Estatu Parte-hartzaileen bilera batean gainbegiratuko da iraupena, Batzorde Orokorraren onespeneraren erreserban;

6. Idazkari Nagusiari Protokoloa indarrean jartzeko langileak eta beharrezko zerbitzuak eskatzen dizkio, Batzordeak horren arabera dagozkion betebeharrak eraginkortasunez bete ditzan.

7. Idazkari Nagusiari, Batzar Orokorrari Konbentzioaren egoerari buruz aurkeztutako aldizkako txostenetan Protokoloaren egoerari buruzko informazioa eransteko eskatzen dio

ERANSKINA

Protokolo honetako Estatu Parte-hartzaileek,

Nazio Batuetako Gutunean oinarritzko giza eskubideengan, duintasunarengan eta gizakia-
ren balioagan zein gizon-emakumeen berdintasun eskubideengan duten sinesmena berresten
dutela ikusiz,

Giza eskubideen Adierazpen Unibertsalen 217 A (III) Erabakian, gizaki oro, libre eta duinta-
sun zein eskubide berdintasunean jaiotzen dela adieraziz, eta pertsona orok inongo bereizke-
tarik egin gabe bertan aldarrikatzen diren eskubide eta askatasun guztiak, sexuaren inguruko-
ak barne, dauzkala adieraziz,

Giza eskubideen nazioarteko Itunak, 2200 A (XXI) Erabakiak, eranskinak eta beste giza es-
kubideen nazioarteko baliabideek sexuagatiko diskriminazioa debekatzen dutela gogoraraziz,

Baita emakumeak diskriminatzeko edozein era saihesteko Konbentzioko4 ("Konbentzioa")
Estatu parte-hartzaileek emakumeak diskriminatzeko edozein era salatzen dutela gogoraraziz,
eta luzamendurik gabe emakumeak diskriminatzeko era guztiak saihestera bideratuta dagoen
politikaren ildotik egoki diren bide guztiak jarraituko dituztela hitzartu dutela gogoraraziz,

Emakumeek oinarritzko giza eskubideez eta askatasunez guztiz goza dezaten, eta eskubide
zein askatasunaren hausterik gertatzen ez dela ziurtatzeko hartu duten erabakia berretsiz,

Hau erabaki dute:

1. ARTIKULUA

Protokoloko Estatu parte-hartzaile guztiek ("Estatu parte-hartzaileak") Emakumeen aurkako
Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen ("Batzordea") betebeharra onartzen dute 2. artikulua-
ren arabera, aurkeztutako gaztiguak jasotzeko eta kontuan hartzeko garaian.

2. ARTIKULUA

Gaztiguak estatu parte-hartzailearen jurisdikziopeko pertsona batek edo talde batek aurkez ditzakete. Pertsona edo talde horrek zein haien izenean jardungo dutenek, Estatu parte-hartzaileak Konbentzioan adierazitako eskubideren bat hautsi duela alegatuko dute. Gaztiguak pertsona baten edo talde baten izenean aurkeztean, biktimen baimena beharko da, gaztigua igortzen duenak biktimaren baimenik gabe jarduteko arrazoirik ezin badu eman behintzat.

3. ARTIKULUA

Gaztiguak idatziz aurkeztuko dira eta ezin dute anonimoak izan. Batzordeak ez du Konbentzioko Estatu parte-hartzaileraren batekin zerikusia duen gaztigurik jasoko, Protokoloari bat eginik ez badago behintzat.

4. ARTIKULUA

1. Batzordeak ez du gaztigurik ikertuko, barne-baliabide guztiak agortu direla egiaztatu arte, baina hori ez da gertatuko inolako arrazoirik gabe errekursoen izapideak bideratzea gehiegi luzatzen direnean edo konponbide egokia hartzea posible ez denean.

2. Batzordeak onartezintzat joko ditu honako gaztiguak:

- a) Batzordeak dagoeneko ikertu dituen gaiak eta beste ikerketa-prozeduraren baten gaia, zein nazioarteko konponbideren baten gaia dena edo izan dena;
- b) Konbentzioko xedapenekin bat ez datorrena;
- c) Guztiz funtsik gabea edo nahikoa berretsi gabe dagoena;
- d) Gaztigua aurkeztea eskubideen gehiegizko erabilpena denean;
- e) Gaztiguaren gaia diren ekintzak Protokoloa Estatu parte-hartzaile horretan indarrean jarri baino lehen gertatu direnean, ekintza horiek egun horretatik aurrera jarraitzen dutenean ez ezik.

5. ARTIKULUA

1. Gaztigua jaso ondoren eta haren oinarriei buruz ondoriorik atera aurretik, Batzordeak edozein momentutan Estatu parte-hartzaile interesatuari, gaztigua lehenbailehen aztertzeko, eta behin-behineko neurri egokiak hartzeko eskatu ahal izango dio, biktimek edo ustezko eskubide-haustearen biktimek kalte konponezinik jasan ez dezaten.

2. Batzordeak bere ahalmen araurik gabeak erabiltzen dituenean, artikuluko 1. paragrafoaren arabera, ez du onarpenari buruzko inolako epairik ekarriko, ezta gaztiguaren oinarriari buruzko epairik ere.

6. ARTIKULUA

1. Batzordeak, gaztiguren bat, Estatu Parte-hartzaile interesatuari igorri gabe, onartezina dela erabakitzen ez badu, eta pertsona interesatua/k beraien nortasuna Estatu parte-hartzaileari jakinarazteko baimena ematen badute, Batzordeak, isilpean, Protokoloak dioenaren arabera jasotzen duen gaztigu ororen berri emango dio Estatu parte-hartzaileari.

2. Sei hilabeteko epean, Estatu parte-hartzaileak azalpen edo adierazpenak aurkeztuko dizkio idatziz Batzordeari gaia argitzeko, hartu dituen neurri zuzentzaileak adieraziz, hala baleude.

7. ARTIKULUA

1. Batzordeak, Protokoloaren arabera, jasotzen dituen gaztigu guztiak aztertuko ditu. Batzordea, pertsona edo taldeek, nahiz haien izenean eta Estatu parte-hartzailearen izenean, bere esku jarri duten informazioan oinarrituko da. Beti ere informazio hori alderdi interesatu guztiei igortzen bazaie.

2. Batzordeak saio pribatuetan aztertuko ditu Protokoloaren arabera jasotzen dituen gaztiguak.

3. Gaztiguren bat aztertu ondoren, Batzordeak horri buruz duen iritzia helaraziko die alderdi interesatuei bere aholkuekin batera, hala baleude.

4. Estatu parte-hartzaileak irizpenean jarriko ditu Batzordearen iritzia, baita haren aholkuak ere, hala baleude, eta Batzordeari erantzun bat bidaliko dio idatziz sei hilabeteko epean, bereziki Batzordearen iritzi eta aholkuen eraginez hartu diren neurri guztiei buruzko informazioaren berri emanez.

5. Batzordeak, Estatu parte-hartzaileari eskatu ahal izango dio Batzordearen iritzi eta aholkuei erantzunez Estatuak hartu dituen neurrien berri emateko, hala baleude, baita Batzordeak egoki baderitzo, Estatu parte-hartzaileak Konbentzioko 18. artikuluaaren arabera aurrerago aurkeztuko dituen informetan ere.

8. ARTIKULUA

1. Batzordeak, Estatu parte-hartzailearen batek Konbentzioan azaltzen diren eskubide-hauste larri eta sistematikoak burutzen dituela jakiten badu iturri sinesgarri baten bidez, informazio horren inguruko oharra aurkezteko eskatuko dio Estatu parte-hartzaileari informazio hori ikertzen laguntzeko.

2. Estatu parte-hartzaile interesatuak aurkeztutako oharra kontuan hartuz, baita bere esku dagoen informazio sinesgarri guztia ere, Batzordeak partaide bati edo bat baino gehiagori ikerketa bat burutzeko eta Batzordeari larrialdi txosten bat aurkezteko agindu ahal izango dio. Justifikatuta dagoenean eta Estatu parte-hartzailearen baimena lortzean, lurralde horretara egindako bisitaldi bat erantsi ahal izango da ikerketan.

3. Ikerketaren ondorioak aztertu ondoren, Batzordeak Estatu parte-hartzaileari igorriko dizkio egoki iruditzen zaizkion ohar eta aholkuak.

4. Sei hilabeteren buruan, ikerketaren emaitzak eta Batzordeak emango dizkion ohar eta aholkuak jaso ondoren, Estatu parte-hartzaile interesatuak Batzordeari bere ohar propioak aurkeztuko dizkio.

5. Ikerketa isilpekoa izango da eta urrats bakoitzean Estatu parte-hartzailearen lankidetzat eskatuko da.

9. ARTIKULUA

1. Batzordeak, Estatu parte-hartzaile interesatuari, Konbentzioko 18. artikuluaaren arabera aurkeztu behar duen txostenean Protokoloko 8. artikuluaaren arabera egindako ikerketari erantzunez hartu dituen erabakien gorabeherak eransteko eskakizuna egin diezaioke.

2. 8. artikuluko 4. paragrafoan, ezarritako sei hilabeteko epea igaro ondoren, Batzordeak, beharrezkoa bada, Estatu parte-hartzaile interesatuari ikerketaren eraginez hartutako edozein neurriren berri ematea eskatu ahal izango dio.

10. ARTIKULUA

1. Estatu parte-hartzaile orok, Protokoloa sinatu edo berresteko garaian edo berarekin bategiteko garaian, 8 eta 9. artikuluetan ezarritako Batzordearen betebeharra ez duela onartzen adierazi ahal izango du.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoaren arabera adierazpenak egin dituen Estatu parte-hartzaile orok, edozein momentutan adierazpen hori atzera bota dezake, aldez aurretik Idazkari Nagusiari horren berri emanez gero.

11. ARTIKULUA

Protokoloaren arabera Estatu parte-hartzaile bakoitzak beharrezko neurriak hartuko ditu, bere jurisdikziopeko inork Batzordeari igorritako edozein gatziguren eraginez tratu txarrik, nahiz larderiarik jasaten ez duela bermatzeko.

12. ARTIKULUA

Batzordeak, Protokoloaren arabera, urtero Konbentzioko 21. artikuluaaren arabera aurkeztu behar duen txostenean erantsiko du bere ekitaldien laburpena.

13. ARTIKULUA

Estatu parte-hartzaile bakoitzak Konbentzioa eta Protokoloa ezagutarazteko konpromisoa hartzen du, baita haien publizitatea egitekoa ere. Era berean Batzordearen iritzi eta aholkuei buruzko informaziora iristeko erraztasunak emateko konpromisoa hartzen du, batez ere Estatu parte-hartzaile horrekin zerikusia duten gaiei dagokienez.

14. ARTIKULUA

Batzordeak bere araudi propioa aurkeztuko du, eta araudi hori Protokoloak ematen dizkion funtzioak betetzerakoan erabiliko du.

15. ARTIKULUA

1. Protokoloa irekita egongo da Konbentzioa sinatu duen, hura berretsi duen edo harekin bat egin duen edozein Estatuk sinatu dezan.

2. Protokoloa, Konbentzioa berretsi duen edo harekin bat egin duen edozein Estaturen berrespenaren arabera egongo da. Berrespen baliabideak Nazio Batuetako Idazkari Nagusiak gordeko ditu.

3. Protokoloa irekita egongo da Konbentzioa berretsi duen edo harekin bat egin duen edozein Estatuk Protokoloarekin bat egin dezan.

4. Bat egitea burutzeko, dagokion baliabidea Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren esku da goela egingo da.

16. ARTIKULUA

1. Protokoloa Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari hamargarren berrespen edo bat egite baliabidea eman eta hiru hilabetera jarriko da indarrean.

2. Protokoloa indarrean jarri ondoren hura berresten duen Estatu bakoitzarentzako edo harekin bat egiten duen edozein Estaturentzako, Estatuak bere berrespen edo bat egite baliabidea gorde eta hiru hilabetetara jarriko da indarrean.

17. ARTIKULUA

Ez da onartuko Protokoloarekiko salbuespenik.

18. ARTIKULUA

1. Estatu parte-hartzaile guztiek proposatu ahal izango dituzte zuzenketak eta Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren aurrean aurkeztu. Idazkari Nagusiak Estatu parte-hartzaileei zuzenketa berri emango die eta proposamenak aztertzeko eta botaketa egiteko Estatu parte-hartzaileen arteko konferentzia bat antolatu nahi badute, horren berri eman dezatela eskatuko die. Estatu parte-hartzaileen heren bat gutxienez konferentziaren alde badago, Idazkari Nagusiak konferentziarako deialdia egingo du Nazio Batuen babespean. Konferentzian dauden eta botaketan esku hartu duten Estatu parte-hartzaileen gehiengoak onetsitako zuzenketa orok Nazio Batuetako Batzar Orokorraren onespena beharko du.

2. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrak eta Protokoloko Estatu parte-hartzaileen bi herenek, beraien konstituzio prozeduren arabera, osatzen duten gehiengoak onartu ondoren jarriko dira indarrean.

3. Zuzenketa horiek indarrean jartzean, onartu dituzten Estatu parte-hartzaileentzako derri-gorrezkoak izango dira, artean gainerako Estatu parte-hartzaileak Protokoloko xedapenak arautuko dituzte, baita aldez aurretik onartu duten zuzenketa orok ere.

19. ARTIKULUA

1. Edozein Estatu parte-hartzailek Protokoloa salatu ahal izango du edozein momentutan Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari igorritako jakinarazpen baten bidez. Salaketak Idazkari Nagusiak haren berri izan eta sei hilabetera izango du eragina.

2. Salaketak ez du eragingo Protokoloko xedapenak aurkeztutako edozein gaztiguri aplikatzen jarraitzeko garaian, 2. artikuluaaren arabera, edo hasitako edozein ikerketa, 8. artikuluaaren arabera, salaketaren eraginkortasun dataren aurretik.

20. ARTIKULUA

Nazio Batuetako Idazkari Nagusiak Estatu guztiei jakinaraziko dizkie:

- a) Protokoloarekiko sinadurak, berrespenak eta bat egiteak.
- b) Protokoloa zein egunetan jarriko den indarrean eta 18. artikuluaaren arabera edozein zuzenketa;
- c) 19. artikuluaaren arabera jasotako edozein salaketa.

21. ARTIKULUA

1. Protokoloa Nazio Batuetako artxibategian gordeko da. Bestetik, esan beharra dago protokoloaren arabierazko, txinerazko, espainierazko, frantsesezko, ingelesezko zein errusierazko testuak benetakoak direla.

2. Nazio Batuetako Idazkari Nagusiak Protokoloaren kopia ziurtatuak bidaliko dizkie Konbentzioko 25. artikuluan aipatutako Estatu guztiei.

HAUTAZKO
PROTOKOLOAREN
AZTERKETA*

Felipe Gómez Isa*

Nazioarteko Zuzenbide Publikoko Irakasle eta Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko partaide. Bestetik, Emakumeak Diskriminatzeko Edozein Era Saihesteko Konbentzioaren Hautazko Protokoloko Lan-taldean hartu du parte 1998ko eta 1999ko martxoko saioetan (Nazio Batuak, New York).

Artikulu honetan emakumeen giza eskubideek nazioartean igaro dituzten garaien ibilbide historiko laburra egiten saiatuko naiz. Nazio Batuen lana aztertuko dut bereziki, 1945etik gaur egunera arte sexu-diskriminazio ezak izan duen onarpena ikusiko dugu, eta arreta berezia eskainiko diot 1979an Nazio Batuetako Batzar Nagusiak adostutako konbentzio bati: Emakumeak Diskriminatzeko edozein Era Saihesteko Konbentzioari. Hala ere, nire ikerketaren muina Konbentzioaren Hautazko Protokoloaren eraketa izango da. Protokoloa, funtsean, nazioartean emakumeen giza eskubideak babesteko dauden mekanismo ahulak sendotzen saiatuko da. Aurrerago azpimarratuko dugun bezala, prozesuak zailtasun eta oztopo ugari aurkitu ditu bidean, laurogeita hamarreko hamarkadan hasi zenetik. Hala eta guztiz ere, prozesu zaila izan arren, azkenean, 1999ko urrian Nazio Batuen Batzar Nagusiak Hautazko Protokoloa onartu zuten amaitu zen.

1. EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEAK GIZA ESKUBIDEEN OHIKO DISKURTSETIK KANPO UZTEA

Giza eskubideak duela gutxioko gauza dira. XVIII. mende bukaeran Europa eta Ipar Amerikan gertatu ziren iraultza liberekin batera sortu ziren (1). Inongo zalantzarik gabe, 1789an (2) Frantziako Iraultzak eman zien giza eskubideei izaera-gutuna, *Gizakien eskubideen eta hiritarraren eskubideen Adierazpen Frantsesa* onetsi zenean. Dena den, ez adierazpen garrazitsu horrek, ezta Ilustrazioko mugimenduak ere, ez dute emakumeen giza eskubideak finkatzeko ahaleginik egingo, are gutxiago emakumeak politika (3) parte hartzearen alde ere. Encarnación Fernández-ek horren inguruan esan bezala, "emakumeak politikan parte hartzeko eskubidea onartu ez izana, printzipio iraultzaileekin kontraesanean zegoen eta bereziki, eskubide-berdintasun printzipioarekin" (4). Dena den, Frantziako bultzada iraultzailetik zenbait ahots sortuko dira emakumeen eskubideak aldarrikatzu. Adibide garbienak hauek dira: Concordet eta bere *Essai sur l'admission des femmes au droit de cité* (1790) eta Olympe de Gouges eta bere *Déclaration des droits de la femme et de la citoyenne* (1791). Concordet eta Olympe de Gouges-en garai berean idazten du Britainia Handian Mary Wollstonecraft-ek ere. Azken hau,

(1) Horrek ez du esan nahi XVIII. mendea baino lehen zenbait giza eskubide onartzeko ahaleginik egin ez zenik. Horren inguruan oso esanguratsua da Salamancako Nazioarteko Zuzenbide Eskola deritzonak Amerikako konkistan indioen eskubideak onartzu egindako lana. Ikus BEUCHOT, M.: *Los fundamentos de los derechos humanos en Bartolomé de las Casas*, Anthropos, Bartzelona, 1994. Giza eskubideen historiari ekarpen interesgarria OESTREICH, G. eta SOMMER-MANN, K-P: *Pasado y presente de los derechos humanos*, Tecnos, Madril, 1990.

(2) Adierazpen honen izenburuak berak, gizaki eta hiritarraren eskubideei bereziki erreferentzia egitean, argi eta garbi adierazten du zein giza eskubide nagusituko den.

(3) Ilustrazio garaiko feminismoari buruz ikus MOLINA PETIT, C.: *Ilustración y Feminismo: lo privado y lo público en el pensamiento liberal*, Doktore tesia, Universidad Complutense, 1987.

(4) FERNANDEZ, E.: "Los derechos de las mujeres", BALLESTEROS, J.: *Derechos Humanos*, Tecnos, Madril, 1992, 148. or.

bere *A Vindication of the Rights of Women* (1792) lanari esker, britainiar mugimendu feminis-taren aitzindarietako bat bilakatu zen. Ekarpen horiek legearen aurrean emakumeen eskubide-ak sendotzeko lehen saiakera dira. Azpimarratu beharra dago emakumeek lege-mailan des-berdintasun (5) egoera larriak jasan izan dituztela, eta egoera horrek gaur egun ere berdina ja-rraitzen du.

Frantziako Iraultzatik gaur egunera arte giza eskubideek harrera ona izan dute bai nazio mailan, baita nazioartean ere. Giza eskubideen eboluziotik sortu ziren, giza eskubideen(6) hiru belaunaldiak deritzenak, eta belaunaldi horiei esker, diskriminazio eza eta emakumeen eskubi-deak finkatzen ikusi ditugu. Hala ere, emakumezko zenbait autoreren ustez, garapen hori giza eskubideen kontzeptu androzentrikoaren menpe gertatu da. Kontzeptu horrek gizonezkoen es-perientzia eta beharrak ditu oinarritzat eta ez du kontuan hartzen emakumeek mundua ulertze-ko duten ikuspegia. Carmen Magallón-ek dioenez, "androzentrismoa mendebaldeko pentsa-moldea eta giza eskubideen tradizioa definitzen duen ezaugarria da" (7). Gainera, giza eskubi-deen egitura bera, historian zehar diseinatu den bezala, giza eskubideei dagokienez emaku-meen beharrak zeintzuk diren kontuan hartzen ez dituen egitura da. Giza eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak berak, eta giza eskubideak bermatzen saiatzen diren nazioarteko lege-multzo guztiak, "gizoneen esperientzia islatzeko eta emakumeena baztertzeko egin dira" (8). Emakumeen itxaropenak kanpoan uzteko arrazoietakoa bat honako hau da: nazioarteko arauak sortzen dituen barrutientzako, Estatuentzako eta Nazioarteko Erakundeentzako, alegia, "emakumeak guztiz ikustezinak direla eta hori ikaragarria da..., oso emakume gutxi daude ga-rrantzizko postuetan" (9). Hori dela-eta, gizonezkoen ikuspegia nagusituko da.

(5) Emakumeen eskubideen garai historikoei buruzko ikerketa bat aurki da BENSANDON, N.: *Les droits des femmes des origines à nos jours*, Presses Universitaires de France, Paris, 1983. Emakumeek zenbait garai historikotan bizi izandako egoerari buruz, ikus JUST, R.: *Women in Athenian Law and Life*, Routledge, London, 1994; SEALEY, R.: *Women and Law in Classical Greece*, The University of North Carolina Press, Chapel Hill, 1990; GARDNER, J.F.: *Women in Roman Law and Society*, Routledge, London, 1990; GUERRA MEDICI, M.T.: *I Diritti delle donne nella Società Altomedievale*, Edizioni Scientifiche Italiane, Napoli, 1986.

(6) Giza eskubideen lehen belaunaldia XVIII. mendeko liberalen iraultzen ondorioz sortu ziren eskubide zibil eta politi-koak lirateke. Bigarren belaunaldiko eskubideak XIX. mendearen bigarren erdian azaldu ziren komunisten eta sozialis-ten mugimenduen ondorioz eman ziren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak dira. Azkenik, hirugarren belaunaldi-ko eskubideak, hirurogeiko hamarkadan sortu ziren eskubideak dira, elkartasuna nazioartean sustatzen saiatu ziren es-kubideak hain zuzen ere, GÓMEZ ISA, F.: "Los derechos humanos en perspectiva histórica", *Corintios* XIII, 88. zkia., urria-abendua 1998, 17-53. or.

(7) MAGALLÓN, C.: "Los derechos humanos desde el género", CENTRO PIGNATELLI (Ed.): *Los derechos humanos, ca-mino hacia la paz*, Aragoiko Diputazio Nagusia-Bakerako Ikerketa Mintegia, Zaragoza, 1997, 259. or.

(8) CHARLESWORTH, H.: "Human Rights, Men's Rights", PETERS, J.: eta WOLPER, A. (ed.): *Women's Rights, Human Rights: International Feminist Perspectives*, Routledge, New York, 1995, 103. or.

(9) CHARLESWORTH, H.: "Human Rights as Men's Rights"..., *op.cit.*, 104. or. Emakumezko egile honek erakusten ditu giza eskubideen organoetan emakumeek dituzten ordezkariak, datu horiek erakusten dute gertatzen den diskrimina-zioa. Zentzu horretan, Arraza-diskriminazioa Saihesteko Batzordean emakume bakarra dago eta guztira 18 partaide dauka; Giza eskubideen Batzordean hiru emakume daude eta guztira 18 partaide dira; Ekonomi, Sozial eta Kultural es-kubideen Batzordean bi emakume daude eta guztira 18 partaide dira; eta Torturaren aurkako Batzordean 10 partaideta-tik bi emakumeak dira.

Giza eskubideek emakumeen beharrei ez erantzuteko beste arrazoi garrantzitsuetako bat hau izan da: giza eskubideen kontzeptua, eremu publiko eta pribatua osatzen duten dikotomiaren artean egotea, hortaz, giza eskubide horiek eremu publikora egokitzen dira. Hau da, arau juridikoen bidez aurreikusten saiatzen diren giza eskubideen urratzeak dira eremu publikoan gertatzen direnak, izan ere eremu publikoa izan da ohiko Estatuaren ardura. Aitzitik, badakigu emakumeen giza eskubideen lehen urratzeak eremu pribatuan gertatu ohi direla, batez ere, famili giroan, eta Estatuak eremu horretan sartzeari galarazita dauka, giza eskubideen ohi-ko teoriaren arabera. Charlotte Bunch-ek horri buruz esan duen bezala, "publiko eta pribatuaren arteko bereizketa, emakumeen menpekotasuna justifikatzeko dikotomia hedatua da, baita eremu pribatuan gertatzen diren giza eskubideen urratzeak publikoki behatuak izan ez daitezen ere" (10) .

Beraz, giza eskubideen ohiko hitzaldia, emakumeak kontuan hartu gabe garatu dela argi dago, eta diskurtso hori aldatzea guztiz beharrezkoa da emakumeak zein haien beharrak gogotan hartuko dituen ikuspegia lortzeko (11).

2. NAZIO BATUEN PAPERAK DISKRIMINAZIO EZAREN PRINTZIBIOA ONARTZEKO GARAIA

Nazio Batuetako Gutunaren Hitzaurrean bertan, Bigarren Mundu Gerra bukatu ostean argitaratutako Nazioarteko Erakunde berriaren dokumentu osagarrian, Nazio Batuetako herrialdeak "emakumeen eta gizoneen eskubide-berdintasuna sustatzeko prest" agertzen dira. Jarraian, 1. artikuluko 3. paragrafoan honela dio: NBERen helburuetako bat "giza eskubideen errespetua, nahiz guztion oinarritzko askatasunarena sustatu eta garatzea dela, arraza, sexu, hizkuntza edo erlijioagatiko bazterketarik egin gabe". Diskriminazio eza, Erakundearen funtzionamenduari aplikatzeko saiakeran, Gutuneko 8. artikulua dioena zera da: "Erakundeak ez du inongo mugarik ezarriko emakume eta gizonezkoen artean hautatzerakoan, haren organo nagusi zein subsidiarioen funtzioetan berdintasunez jokatu ahal izateko". Ikus dezakegun bezala, Nazio Batuetako Erakundeak, diskriminazio ezaren aldeko apustua egin zuen hasiera-hasieratik (12) .

(10) BUNCH, C.: "Transforming Human Rights from a Feminist Perspective", PETERS, J. and WOLPER, A. (Ed.): *Women's Rights, Human Rights...*, op. cit., 14. or.

(11) FREEMAN, M.A. and FRASER, A.S.: "Women's Human Rights: Making the Theory a Reality", HENKIN, L. and HARGROVE, J.L. (ed.): *Human Rights: An Agenda for the Next Century*, The American Society of International Law, Washington, D.C., 1994, 104. or.

(12) Nazio Batuek emakumeen inguruan burututako lanari buruzko estudio zehatza da: WINSLOW, A. (Ed.): *Women, Politics and the United Nations*, Greenwood Press, Westport, 1995; ikus baita CAMPS MIRABET, N.: "La acción de la Organización de las Naciones Unidas para el desarrollo y protección de los derechos de la mujer", eta *Tendencias actuales en Derecho Internacional*, Almuñécar-en (Granada), 1994ko irailean ospatutako Mintegian.

Nazio Batuek emakumeen aurkako diskriminazio ezarekin hartu duen konpromisoaren erakusle esanguratsua da 1946an, hots, martxan jarri eta urtebetera, sortu zela Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen sorrera. Organo horrek izango du ordutik aurrera emakumeen inguruko gai (13) guztien ardura. Batzorde honek berebiziko garrantzia izan du Nazio Batuen barrutian onartzen diren giza eskubideen tresnak eratzerakoan (14).

Nazio Batuetako Gutunean, giza eskubideen inguruan azaltzen ziren xedapenak oso lauso eta orokorrak zirenez, laster haiek zehazteko beharra ikusi zen. Hor hasi zen Giza Eskubideen Adierazpena sortzeko ideia, eta prozesu baten ondoren, 1948ko abenduaren 10ean onartu zen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (15). Aipatu beharra dago Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeak paper garrantzitsua izan zuela Adierazpen Unibertsalaren eraketan, eta une oro testuan emakumeen ikuspegia eranstearen alde agertu zen. Horri dago-kionez, Begtrup andereak, artean Batzordeko Lehendakari zenak, berebiziko garrantzia izan zuen.

Giza eskubideen Adierazpenaren Hitzaurreak berriro baieztatzen du "gizon eta emakumeen eskubideen berdintasunean" sinesten duela, Nazio Batuetako Gutuneko Hitzaurreak adierazi bezala. Adierazpeneko 1. artikulua emakumeen eskubideen ikuspuntutik oso garrantzitsua da, izan ere zera dio:

"*gizaki guztiak* askatasunean jaiotzen dira, baita duintasun eta eskubideen berdintasunean ere. Arrazoitzeko eta kontzientzia izateko gai direnez, elkarrekiko anaitasunean jokatu behar dute" (kurtsiba guk jarri dugu).

Kurtsibaz idatzi dut "*gizaki guztiak*", izan ere Adierazpen Unibertsala onartzeko garaian eztabaida ugari sortu zuen esaera izan zen. Hasiera batean artikulua honentzako egin ziren proposamenetako batek "*gizon guztiak*" zioen, eta hori ez zen ona ez emakumeentzako, ezta Giza eskubideen Adierazpen Unibertsalaren hasierarentzako ere. Azkenik, Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeak egindako presioari esker eta emakumeen aldarrikapenak kontuan hartzen dituzten Estatuaren ordezkariak esker, Adierazpenaren 1. artikuluan azaltzen den esaera eranstea lortu zen. Azken esaera horrek *gizateriaren* (16) erdia errespetu handiagoz tratatzen du.

(13) Batzorde honek burututako lanaren inguruan dihardute GALEY, M.E.: "Promoting Non-Discrimination Against Women: The Commission on the Status of Women", *International Studies Quarterly*, 23, 2. liburukia, 1979., 273-302. or.

(14) Batzorde hau izango da, aurrerago ikusiko dugun bezala, CEDAWrako Hautazko Protokoloa eratzekeko ardura zuen Lan-taldea sortu zuena.

(15) Adierazpen Unibertsalari buruzko iruzkin labur bat haren 50. urtemugan ORAA, J. eta GOMEZ ISA, F.: *La Declaración Universal de los Derechos Humanos*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1997.

(16) Eztabaida eta negoziazio horien gorabehera *gizakiak* kontsulta daitezke: MORSINK, J.: "Women's Rights in the Universal Declaration", *Human Rights Quarterly*, 13. liburukia, 1991, 233. or. eta hurrengoak.

Bestalde, Adierazpen Unibertsaleko 2. artikulua diskriminazio ezaren printzipioari ospea damaio. 2. artikulua horretako 1. paragrafoan zera ezartzen da:

"Pertsona guztiak dira Adierazpen honetako eskubide eta askatasun ororen jabe, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzizko edo edozein eratako desberdintasunik egin gabe, ezta zein naziokoa den, zein jatorri sozial duen, zein egoera ekonomikotik dagoen, jaiotzazko jatorriari nahiz beste edozein baldintza ere kontuan hartu gabe".

Ikus dezakegun bezala, lehen aztertu dugun Nazio Batuetako Gutuneko 1.3. artikuluari lotuta, diskriminazioaren galarazpenarekin erlazionatua dauden egoerak ugaritu egin dira.

Emakumeen mugimenduaren beste arrakastetako bat hau izan zen: Adierazpen Unibertsalean, "pertsona guztiak", "edozein gizaki", "inor" eta antzeko beste esamolde batzuk eranstea. Modu horretan adierazi nahi zuten Adierazpen Unibertsalean onartutako giza eskubideetan ez dela diskriminaziorik egon behar.

Hala ere, badaude, Adierazpen Unibertsalean emakumeen eskubideen ikuspuntutik nahiko negatiboak diren erreferentziak. 23.4. artikulua honakoa dio: lanerako eskubidearen onarpenari dagokionez "lan egiten dutenek bidezko eta behar bezalako ordainsari, berari zein bere *familiari*, gizakiari dagokion duintasunez bizitzea ahalbidetzeko..." (kurtsiba guk jarri dugu). Xedapen horrek, noski, gizonaren laneko diru-sarrerak besterik ez du aurreikusten, eta diru-sarrera hori gizonak dakarrela. Uste hori Adierazpen Unibertsalaren ingelesezko bertsioak ere sustatzen du, izan ere "his" posesiboa darabil, hots, gizona da familia mantendu behar duena (17).

Adierazpenak emakumeenganako erreferentzia negatiboak izan arren, Johannes Morsink-ek zera esan du: "erredakzioaren barne-prozesua eta azken emaitza lortu arteko istiluek erakusten dute emakumeen eskubideen ikuspuntutik, Adierazpen Unibertsala oso dokumentu aurrerakoa dela" (18). Beste batzuek Adierazpenaren inguruan duten iritzia, ordea, ez da hain ona (19).

Nazio Batuek 1996an onartutako Nazioarteko bi Hitzarmenek ere diskriminazio ezari buruzko informazioa bilduko dute. Bi Itunen sexuagatiko diskriminazio ezaren izaera generikoa izendatu ondoren, bi Itunen 3. artikulua, eskubide zibilen eta eskubide-politikoaren Nazioarteko

(17) Logika bera dauka Adierazpeneko 25. artikulua bizi-baldintza egokiak izateko eskubidea aldarrikatzeko garaian.

(18) MORSINK, J.: "Women's Rights...", *op. cit.*, 255. or.

(19) POLLIS, A.: *Toward a Human Rights Framework*, MORSINK, J.-en aipatua: *op. cit.*, 233. or.

Itunak, eta bestalde, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturelek ildo berean zera diote: "Itun honetako Estatu parte-hartzaileek gizon eta emakumeen berdintasuna bermatzeko konpromisoa hartzen dute" (20) Itun honetan aipatu diren eskubideak biltzeko garaian.

Behin Nazio Batuen babespean adostutako tresna orokorrak gainbegiratuta, emakumeen eskubideak onartzeko bereziki dauden lege-tresnak aztertuko ditugu. Alor horretan Nazio Batuek lan goraipagarria egin dute (21). Hor, Lanaren Nazioarteko Erakundea, lan-munduan emakumeen eskubideak aldarrikatzen sakontzen saiatu da. Horrela, 1948ko uztailaren 9an industrian lanean ari diren emakumeen gaueko lanari (22) buruzko Hitzarmena adostu zuen. Hiru urteren buruan, 1951an, balio bereko lanagatik emakumeek eta gizonezkoek jasoko zuten ordainsari berdintasunaren (23) Hitzarmena adostu zen. Nazio Batuen Erakundeak, 1952an emakumeen eskubide politikoen Hitzarmena adostu zuen (24). Nazioarteko hitzarmenek, eta beste askok, argi erakusten dute Nazio Batuek emakumeen aldeko konpromiso argia egiten dutela.

Baina, zalantzarik gabe, emakumeen diskriminazioaren aurkako borrokan testurik garrantzitsuenak, Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Nazio Batuen Batzorde Nagusiarenak (25) dira (1967), baita Batzorde Nagusiaren Adierazpenak zioenari indar juridikoa ematea eta hura osatzea lortu zuen, Emakumeak Diskriminatzeko Edozein Era Saihesteko Konbentzioarenak ere (aurrerantzean CEDAW (26) izango da).

Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Adierazpenean zenbait kezka agertzen da "emakumeen aurkako diskriminazioa handia delako (27) Nazio Batuen Gutuna, Giza eskubideen Adierazpen Unibertsala, Giza eskubideen Nazioarteko Itunak eta erakunde espezializatuak egon arren eta eskubideen berdintasunean aurreratu den arren". Gainera, horri buruz aipatu

(20) Eskubide zibil eta politikoen Nazioarteko Itunean erabilitako erreferentzia da hori. Artean, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturelek adierazten dutenez "Itun honetako partaide diren Estatuak gizon eta emakumeek eskubide ekonomiko, sozial eta kultural guztiak izateko konpromisoa egiten dute". Ikus dezakegun bezala, desberdintasunak erredakzio arrazoiak direla-eta sortzen dira soilik baina eduki bera dute biek.

(21) Alor horretan Nazio Batuek Adostutako baliabide nagusien inguruan burututako ikerketa sakona da STAMATOPOULOU, E.: "Women's Rights and the United Nations", PETERS, J. and WOLPER, A. (Ed.): *Women's Rights, Human Rights...*, op. cit., 37. or. eta hurrengoak.

(22) Espainiak Hitzarmen hau berretsi du eta 1959an jarri zen indarrean.

(23) Nazioarteko itun hori gure herrialdean 1968an jarri zen indarrean.

(24) Hitzarmen hori 1974az geroztik dago indarrean gure herrialdean.

(25) *Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihestearen inguruko Adierazpena*, Nazio Batuetako Batzar Nagusiaren Erabakia 2.236 (XXII), 1967ko azaroaren 7a.

(26) Normalean Konbentzio honek ingeleseko siglak erabiltzen ditu eta CEDAW izenez ezagutzen da, *Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*.

(27) Hitzaurreko 4. paragrafoa.

dugun bezala, "herrialde guztietan *de facto* (28) eman diren aurrerapauso motelekin konparatuz, lege mailako berdintasunean aurreratu da gehien". Adierazpeneko 1. artikulua da garrantzitsuen, izan ere modu generikoan ezartzen du diskriminaziorik eza. Adierazpenaren gai-nontzeko testuen helburua honakoa litzateke: printzipio orokor hori alor jakin batzuetan (parte-hartze politikoa, nazionalitatea, gaitasun juridikoa, hezkuntza, ezkontza...) zehaztea. Adierazpeneko 1. artikulua horren arabera:

"emakumeen diskriminazioa, gizonekiko eskubideen berdintasuna ukatu edo mugatzen duen neurrian, funtsean bidegabea da eta giza duintasunaren aurkako iraina da".

Nazio Batuek emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko burututako ekitaldien barruan, Nazio Batuetako Batzorde Nagusiak 1975a izendatu zuen Emakumeen Nazioarteko Urtea. Ildo berean, eta urte horretan bertan Nazio Batuek Mexikon egin zen Emakumeentzako Lehen Konferentziarako deialdia egin zuen. Emakumeen Nazioarteko Urtea amaitu zenean, eta emakumeen aurrerapausoei jarraitzeko, Emakumeentzako Nazio Batuen Hamar Urteak izendatu ziren. Mexikoko konferentziaren ondoren Copenhagen-koa, Nairobi-koa eta orain dela gutxi, 1995ean Beijing-eko (29) burutu dira. Konferentzia horiek guztiak oso lagungarriak izan dira emakumeen eskubideak sortu eta onartzeko bide malartsuan.

Edonola ere, emakumeen eskubideen onarpenaren eta sakontzearen aldeko jarrerarik argiena Vienako Adierazpena da, eta 1993ko ekainean Giza eskubideen Mundu Konferentzian azaldu zen. Adierazpen honetan zera esan zen:

"emakumeen eta neska gazteen giza eskubideak giza eskubide unibertsalen osagai besterenezin eta zatiezinak dira. Nazioarteko komunitatean lehentasuna duten helburuak hauek dira: emakume guztiek berdintasun-baldintzatan parte-hartzea nazioko, eskualdeko eta nazioarteko bizitza politikoan, zibilean, ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte-hartzea, eta sexuagatiko diskriminazio guztiak saihestea (...)

Emakumeen giza eskubideek Nazio Batuetako ekitaldietan parte hartu behar dute, bereziki emakumeekin zerikusia duten tresnak sustatzeko..." (30).

Jarraian, arreta bereziz aztertuko dugu CEDAWa, emakumeen eskubideen alde Nazio Batuek egindako borroka serio eta sistematikoa egiteko asmoz.

(28) FERNANDEZ, E.: "Los derechos de las mujeres"..., *op. cit.*, 155. or.

(29) ELIZONDO LOPETEGI, A.: "20 años de cooperación internacional para las mujeres: de México a Pekín (1975-1995)", *II Jornadas Municipales sobre la Cooperación Norte-Sur: la dimensión global de la solidaridad*, Amurrio (Araba)-Bermeo (Bizkaia), 1995eko otsailaren 13-21, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1995, 185-211. or.

(30) *Vienako Adierazpena eta Ekitaldi Plana*, Giza Eskubideen Mundu Konferentzia, Viena, 1993ko ekainaren 14tik 25era, A/CONF.157/23, 1993ko uztailaren 12an, 18. paragrafoa.

3. EMAKUMEAK DISKRIMINATZEKO EDOZEIN ERA SAIHESTEKO KONBENTZIOA

Oztopoz jositako Negoziazio-prozesu luze baten ondoren, azkenik, 1979ko abenduaren 17an CEDAWa (31) onartu zuen Nazio Batuetako Batzorde Nagusiak (32), eta berrespen-prozesu bat ireki zuen. Bi urte geroago, 1981eko irailaren 3an, aipatutako Konbentzioa (33) jarri zen indarrean, hogeigarren berrespen- edo atxikipen-tresna Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren aurrean bildu ondoren, 27.1. artikulua esan bezala.

CEDAWak 30 artikuluz osatutako Hitzaurre bat dauka, eta bertan Estatuak eta zenbait auzi-jartzaile pribatuk, diskriminazio ezaren onarpen eta sakontzean aurrera egiteko, hartu behar dituzten neurriak ezartzen dira. Hitzaurre horretan bertan Estatuak Konbentzioaren oinarritzko helburua zein den adierazten dute "Emakumeen Diskriminazioa Saihesteko Adierazpenean aipatutako printzipioak ezartzeko prest agertzen dira, eta horretarako, beharrezko neurriak hartzeko pronto daude diskriminazio era guztiak eta haien edozein adierazpide saihesteko".

CEDAWaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat da, Estatuak ez ezik eremu pribatuari ere zuzentzea. Eremu horretan hain zuzen ere, esan bezala, emakumeen eskubideetako askok urratze larriak jasaten dituzte. Gai hauetan aditua den Donna Sullivan-ek adierazi duen bezala, Konbentzioak "famili barruan generoen arteko erlazioen berregituraketa agertzen du... Estatuak neurri positiboak hartzea eskatzen du estatukoak ez diren auzi-jartzaileek emakumeak babes ditzaten (34) diskriminazioaren aurrean.

Konbentzioko 1. artikulua garrantzitsua da, bertan definitzen delako nola ulertzen den "emakumeen diskriminazioa":

"emakumeari sexuagatik egiten zaion edozein bereizketa, bazterketa edo mugaketa, beti ere helburu edo emaitza gisa honakoa izango duena: emakumearen giza eskubide eta oinarritzko askatasunen onespina eta erabilera murriztea –edozein dela ere bere egoera zibila-. Izan ere, gizonezko eta emakumezkoen berdintasunean oinarrituta, hori guztia legokioke emakumeari hainbat eremutan: politikoan, ekonomikoan, sozialean, kulturalen eta zibilean, baita beste edozein eremutan ere".

(31) CEDAWaren negoziatio-prozesuari buruzko ikerketa interesgarria da FRASER, A.S.: "The Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women (The Women's Convention)", en WINSLOW, A. (Ed.): *Women, Politics and the United Nations...*, op. cit., 84. or. eta hurrengoak.

(32) Batzordearen bozketak konbentzioko negoziatioaren eta hark izango zituen zailtasunen inguruko arazoak agertzen dizkigu: 130 Estatuak aldeko botoa eman zuten, ez zen aurkako botorik egon eta 11 abstentzioak izan ziren. Gehiengoa erlijio eta famili usadio sendoak dituzten herrialdeak izan ziren. Abstentzioak Bangladesh, Brasil, Komoreak, Djibuti, Haiti, Mali, Mauritania, Mexiko, Maroko, Saudi Arabia eta Senegalekoak izan ziren.

(33) 1999ko maiatzaren 24an, Konbentzioko Estatuak 163 dira.

(34) SULLIVAN, D.: "The Public/Private Distinction in International Human Rights Law", PETERS, J. and WOLPERS, A. (ed.): *Women's Rights, Human Rights...*, op. cit., 129. or.

Bestalde, CEDAWko 2. artikuluan, Estatu parte-hartzaileek "emakumeak diskriminatzeko edozein era saihesten dute, berehala eta tresna guztien bidez, eta bat datoz emakumeen aurkako diskriminazioa saihesteko helburua duen politikarekin". Helburu hori lortzeko, Konbentzioko ataletan zehazten diren neurri batzuk hartzeko konpromisoa hartzen dute. Horrela, Estatuak, 3. artikuluan "emakumeen garapen osoa eta aurrerapausoa ziurtatzeko" konpromisoa hartzen dute; 4. artikulua "gizon eta emakumeen arteko *de facto* berdintasunari" egiten dio erreferentzia; jarraian, 5. artikulua Estatu guztiei egiten die gonbitea "emakumeen eta gizonezkoen eredu soziokulturalak" aldatzeko, eta haiek "seme-alaben hezkuntza eta garapenaren erantzukizun elkarbanatua" dutela ezartzen du... "Emakumeekin egindako edozein salerosketa eta emakumea prostituziorako erabiltzea" saihesteari buruz ari da 6. artikulua; 7. artikulua, berriz, "herrialdeko bizitza politiko eta publikoan" emakumeak diskriminatzearen aurka dago. Bestalde, Konbentzioan emakumeek nazioartean parte-hartzearen sustatzea ere aipatzen du (8. artikulua); nazionalitateagatiko diskriminazioa eza (9. artikulua); berdintasun eskubidea hezkuntza mailan (10. artikulua), lanean (11. artikulua), osasun arreta mailan (12. artikulua), ezkontzarekin zerikusia duten gai guztietan, baita familia gaietan ere (16. artikulua); nekazal munduan emakumeak sustatzea (14. artikulua) (35) ...

CEDAWaren eraginkortasunean eragin handia izan duen arazoetako bat Estatuak xedapen (36) batzuen inguruan aurkeztu duten salbuespen kopuru handia izan da. Horrek eragin du CEDAWa izatea salbuespen gehien daukan giza eskubideen nazioarteko hitzarmena. Gainera, aditu jakin batzuen ustez salbuespen horietako batzuk Konbentzioaren (37) helburuaren eta xedearen aurkakoak dira, eta hori Nazioarteko Zuzenbide orokorrak (38) ez ezik, Konbentzioko (39) 28.2. artikulua ere galarazten du. Emakumeen Diskriminazioa Saihesteko Batzordeak,

(35) CEDAWko eduki nagusien azterketa bat da FREEMAN, M.A. and FRASER, A.S.: "Women's Human Rights: Making the Theory a Reality", HENKIN, L. and HARGROVE, J.L. (ed.): *Human Rights: An Agenda for the Next Century...*, *op. cit.*, 112. or. eta hurrengoak.; WRIGHT, S.: "Human Rights and Women's Rights: An Analysis of the United Nations Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women", MAHONEY, K.E. and MAHONEY, P. (ed.): *Human Rights in the Twenty-First Century: A Global Challenge*, Martinus Nijhoff Publishers, Dordrecht, 1993, 75-88. or.

(36) COOK, R.: "Reservations to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women", *Virginia Journal of International Law*, 30. liburukia, 1990, 643-709. or.

(37) STAMATOPOULOU, E.: "Women's Rights and the United Nations", PETERS, J. and WOLPER, A. (Ed.): *Women's Rights...*, *op. cit.*, 38. or.

(38) *Hitzarmenen Zuzenbidearen Vienako Konbentzioa* (1969) 19. artikulua Estatu batek salbuespenak aipa ditzakeela ezartzen du "salbuespena hitzarmenaren helburu eta xedearekin bateraezina" ez bada behintzat.

(39) 28.2 artikulua ezartzen du "Konbentzio honen helburu eta xedeekin bateraezina diren salbuespenik ez onartzea".

behin baino gehiagotan adierazi du "bere kezka Konbentzioaren helburu eta xedeekin bateraezina diruditen salbuespen kopuru handia zela-eta...", eta aditzera eman du "Estatu parte-hartzaile guztiek salbuespen horiek berrikusi ondoren erretira ditzatela" (40). Ildo berean, salbuespen kopuru handia eta haien edukiaren garrantzia kontuan hartuz, Vienan 1993ko ekainean egindako Giza Eskubideen Mundu Konferentziak honakoa agindu zuen: "Konbentzioak izandako salbuespen kopuru handiak eragindako arazoei irtenbideak aurkitzea". Era berean, Konferentziak Estatuak "Konbentzioaren helburu eta xedearen aurkakoak diren edo ohiko nazioarteko zuzenbidearekin bateraezina diren salbuespen guztiak erretira ditzatela" (41) agindu zien.

CEDAWean zehaztutako emakumeen eskubideak babesteko mekanismoak buruz esan behar da, lehenik eta behin, giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenetan (42) azaltzen direnak baino ahulagoak direla. Theodor Meron-en hitzetan, CEDAWa "Nazio Batuetako giza eskubideen hitzarmenen barruan bigarren mailako estatusa da" (43). Nazioartean giza eskubideak babesteko dauden mekanismoetatik (aldizkako txostenak, banakako kexak, estatu-arteko kexak, ikerketa-prozedurak...), CEDAWak aldizkako txostenen mekanismoa besterik ez du onartzen. Konbentzioko 17. artikulua arabera, Emakumeen Aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordea izendatuko da. Batzorde honen funtsezko helburua Estatu parte-hartzaileek Konbentzioa aplikatzerakoan emandako aurrerapausoak aztertzea izango da. Estatuak CEDAWak dioena betetzen dutela frogatzeko, Konbentzioko 18. artikulua honako hau dio: "Estatu parte-hartzaileek zin dagite Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren bidez, neurri legal, judizial eta administrazio-neurrien txosten bat, zein Konbentzio honetako xedapenak betetzeko adostu diren beste edozein neurri ere Batzordearen aurrera eramango dutela azter dezan". Txosten horiek, 18.1 a) eta b) diotenaren arabera, "Estatuan Konbentzioa indarrean jarri eta urtebetera aurkeztuko dira eta gero, gutxienez lau urtero eta Batzordeak eskatzen duenean".

(40) 4. Aholku Orokorra (saioen seigarren garaia, 1987) *Emakumeak Diskriminatzeko Edozein Era Saihesteko Konbentzioa eta Gomendiak*, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea, Bilbo, 1998, 38.. or.

(41) *Vienako Adierazpena eta Ekitaldi Plana*, Giza eskubideen Mundu Konferentzia, Viena, 1993ko ekainaren 14 eta 25 bitartean, A/CONF.157/23, 1993ko uztailaren 12a, 39. paragrafoa, 21. or.

(42) Ikus *Torturari buruzko Konbentzioko* 22. artikulua inguruan; *Arraza-diskriminazio era Guztiak Saihesteko Konbentzioaren* 14. artikulua buruz; edo *Eskubide zibil eta politikoen Nazioarteko Lehen Hautazko Protokoloaren Ituna...* Nazio Batuetako Idazkari Nagusiak burututako ikerketa interesgarriak emakumeen eskubideak babesteko mekanismoak konparatzen ditu giza eskubideen beste hitzarmen batzuetakoekin, IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA: Gaztigu, prozedura eta ikerketei buruzko laburpen konparatiboa giza eskubideen nazioarteko tresnei eta Nazio Batuen Gutunari jarraiki, E/CN.6/1997/4, 1997ko urtarrilaren 21a.

(43) MERON, T.: "Enhancing the Effectiveness of the Prohibition of Discrimination Against Women", *American Journal of International Law*, 84. liburukia, 1990, 213. or.

Emakumeen aurkako Diskriminazioaren Batzordeak (44), Konbentzioko Estatu parte-hartzaileek emandako txostenak aztertzen dituenean, "Estatu parte-hartzaileek emandako txosten eta datuen azterketari buruzko iradokizun eta aholku orokorrak eman ahal izango dizkio" (CEDAWko 21. artikulua) (45). Ikus dezakegun bezala, nahiko mekanismo ahula da, izan ere Estatuak dauka protagonismoa, eta Estatuak da hain zuzen ere informazioa baldintzatzen duena, Batzordearen agintea nahiko mugatua baita. CEDAWko 20.1. artikulua arabera "Batzordea normalean urtero bilduko da, bi aste baino tarte txikiagoz, aurkeztu zaizkion txostenak aztertzeko..." eta hori ere beste zailtasun bat da. Estatuak aurkeztutako txostenen inguruko ikerketa lasai eta zehatza burutzeko bi asteko tarte nahikoa ez dela ikusi da. Horrek eragin du Batzordeak (46) egindako aldizkako txostenen azterketen atzerapena. Hori dela-eta, Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordeak berak, bere 22. Aholku Orokorrean (14. saioa, 1995), Konbentzioko Estatu parte-hartzaileei aholkatu zien 20.1. artikulua zuzenketa aintzat hartzea, Batzordeari "beraien funtzioak betetzeko beharrezkoak diren bilerak" burutzea ahalbidetzeko. Batzordearen iradokizuna argitara emanez, 1995eko maiatzaren 22an egin zen Estatu parte-hartzaileen bilera. Bertan zuzenketa hori onartzeko aholkatzen zuen erabakia hartu zen. Zuzenketa hori CEDAWko Estatu parte-hartzaileen bi herenek berres- ten dutenean jarriko da indarrean. Hala ere, azken urteotan, Nazio Batuetako Batzorde Nagusiak, Batzordearen denbora eskasa ezagututa, urtero hiru asteko bi saiotan bilerak egiteko baimena eman du.

CEDAWak ezartzen dituen emakumeen eskubideak babesteko mekanismoak oso ahulak di- rela izan da arrazoi nagusia honakoa eskatzeko: laurogeita hamarreko hamarkada hasieratik geroz eta mekanismo gogorragoak hedatzea. Hori da Emakumeak Diskriminatzeko Edozein Era Saihesteko Hautazko Protokoloaren helburua. Hori eztabaidatzen jardun du, 1999ko martxoan onartu berri den Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeak sortu duen Lan- taldeak. Ondoko kapitulua Protokolo horretako elementu nagusiak aztertuz itxiko dugu.

(44) CEDAWko 17.1. artikulua dioenaren arabera, Batzordea osatzen dutenak "... Konbentzioan ospe moral handiko eta lan handia burutu duten adituak dira. Aditu horiek Estatu parte-hartzaileek aukeratuko dituzte beren nazioetan eta beraien funtzioa modu pertsonalean beteko dute; geografikoki bidezkoak izateaz gain zibilizazioen ordezkaritzak eta sis- tema juridiko nagusiak ere hartuko dira kontuan".

(45) CEDAWko aldizkako txostenen azterketa sistema zorrotza da ILIC, Z. and CORTI, Y.: "The Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination against Women", UNITED NATIONS: *Manual on Human Rights Reporting under six Major International Human Rights Instruments*, United Nations, Geneva, 1997, 305-365. or.

(46) Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen gorabehera guztien azterketa da FRASER, A.S.: "The Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women...", *op. cit.*, 89. or. eta hurrengoak.

4. EMAKUMEAK DISKRIMINATZEKO EDOZEIN ERA SAIHESTEKO HAUTAZKO PROTOKOLOAREN KONBENTZIOA

4.1. AURREKARIAK

CEDAWaren negoziazio-prozesuan zehar Estatu batzuk (batez ere Holandak) banakako ke-xak Konbentzioaren eremuan sartzea egokia zen ala ez eztabaidatu zuten, hau da, ustez Konbentzioan adostutako xedapenen bat urratu delako pertsona batek salaketa bat jarri ahal izatea Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen aurrean. Dena den, azke-nik, aukera hori alde batera utzi zen (47).

CEDAWa indarrean jarri zenean, Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordea bere betebeharrak betetzen hasi zen, eta berehala bere babes-mekanismoak ahulegiak zirela argi geratu zen. Hori dela-eta, laurogeita hamarreko hamarkada hasieratik aurrera prozedura horiek indartzeko beharra dagoela esan da behin eta berriro. Indartze hori lortzeko bi aukera zeuden: bata, CEDAWa berritzea, eta bestea, Konbentzio horri buruzko Hautazko Protokoloa onartzea. Laster ikusi zen CEDAWa berritzea oso zaila izango zela, batez ere tresna horrek zeuzkan salbuespenak ugariak zirelako. Zailtasun horiek direla-eta, Hautazko Protokoloa onartzea erabaki zen, eskubide politiko eta zibilen Nazioarteko Ituna eredutzat hartuz.

Instantzia doktrinalak (48) eta emakumeen eskubideez arduratzen diren Nazio Batuetako organoak, Hautazko Protokoloa eskatzen hasi ziren. Zentzu horretan, 1991an Emakumeen Aurrerapenerako Dibisioak antolatutako adituen bileran lehenengo aldiz aholkatu zitzaion Nazio Batuetako Erakundeari CEDAWerako Hautazko Protokolo bat onartzeko aukera azter ze-zan. Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordeak hartu zuen txanda eta Vienan antolatuko zen Giza Eskubideen Mundu Konferentziari zuzendutako 4. iradokizunean honakoa aholkatu zuen: CEDAWaren eskakizun eskubidea onartzea, Nazio Batuen babespean onartuta-ko beste hitzarmenekin berdintasunean egon zedin. Giza Eskubideen Mundu Konferentziak "berdintasunaren alde eta emakumeen giza eskubideen aldeko konpromisoak betetzea indar-tzeko prozedura berriak" adostu behar zirela esan zuen. Horretarako dago Vienako Adierazpen eta Ekitaldi Plana,

(47) BYRNES, A. and CONNORS, J.: *The Adoption of a Petition Procedure under the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*, Background Paper prepared for the Expert Group Meeting on the Adoption of an Optional Protocol to the CEDAW organised by the Women in Law Project International Human Rights Group and the Maastricht Centre for Human Rights, University of Limburg, Maastricht, The Netherlands, 29 september-1 october 1994, 3. or.

(48) MERON, T.: "Enhancing the Effectiveness of the Prohibition of Discrimination Against Women" ..., *op. cit.*, 216. eta 217. or.

"Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeak eta Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordeak eskakizun eskubidea sartzeko aukera aztertu behar dute berehala, eta Emakumeak Diskriminatzeko edozein Era Saihesteko Konbentzioaren Hautazko Protokoloa eratu behar dute" (49).

1994an, Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen saioetan, 5. iradokizuna onartu zen, eta bertan, Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeari aditu independenteen talde bat ezartzeko aholkatu zitzaion Hautazko Protokoloaren Proiektua prestatzeko. Batzordeak, bestalde, ez zuen aholku hori jarraitu.

Urte horretan bertan, emakumeen eskubideetan aditu talde bat bildu zuen Maastricht-eko Giza eskubideen Zentroak eta International Human Rights Group-ek. Bilera hori Holandako eta Austriako gobernuek finantzatu zuten eta Hautazko Protokolo serioago eta landuago baterako proiektua sortu zen. Proiektu hori geroko eztabaida eta negoziazioetarako (50) baliagarria izan da.

1995ko urtarrilean, Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordeak 7. iradokizuna onartu zuen eta bertan CEDAWaren Hautazko Protokoloak eduki behar dituen hainbat elementu biltzen ditu (51).

Horrekin guztiarekin, 1995eko uztailan, eta 1995/29 erabakiaren arabera, Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeari CEDAWerako Hautazko Protokoloa osatzeko, Konposizio Irekiko Lan-taldea sortzea eskatu zion.

Urte bereko irailean, Emakumeen IV. Mundu Konferentzia ospatu zen Beijing-en, eta konferentzia hori honakoaren alde dago:

"Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeak hasi zuen Emakumeak Diskriminatzeko Edozein Era Saihesteko Konbentzioaren Hautazko Protokoloa erredaktatzeko prozesua, baita berau indarrean ahalik eta azkarren indarrean jartzeko, eskakizun eskubidearekin zerikusia zuen prozedura " (52).

(49) *Vienako Adierazpen eta Ekitaldi Plana...*, op. cit., 40. paragrafoa, 21. or.

(50) *Draft Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*, adopted by The Expert Group Meeting on the Adoption of an Optional Protocol to the CEDAW organised by the Women in the Law Project International Human Rights Group and the Maastricht Centre for Human Rights, University of Limburg, Maastricht, The Netherlands, 29 september-1 october.

(51) 7. iradokizuna biltzen duen dokumentua da E/CN.6/1995/CRP.1.

(52) *Emakumeen IV. Mundu Konferentziaren Txostena*, Beijing, Txina, 1995eko irailaren 4tik 15era bitartean, A/CONF.177/20, 1995eko urriaren 17an, 230k paragrafoa, 116. or.

1996ko martxoan, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 11995/29 erabakia beteaz, Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeak, Konposizio Irekiko Lan-taldea eratu zuen CEDAWerako Hautazko Protokoloaren Proiektua burutzeko. Lan-taldea New York-en bildu zen martxoaren 11tik 22ra bitartean. Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen 7. iradokizunaren elementuak aztertu zituzten funtsean, baita Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari, CEDAWerako Hautazko Protokoloa onartzeari buruz eta izaera horretako Protokolo (53) batek eduki behar dituen ezaugarri nagusiei buruz hainbat Estatuk igorri zizkion iritziak ere. Espainiar gobernuaren ordezkari gisa Lan-talde horretan aritu zen adituak esan bezala, "Gobernu batek ere ez zuen Hautazko Protokoloa eratzea zalantzan jarri baina (...), proiektuaren inguruan erreparatu ugari dago" (54).

CEDAWerako Hautazko Protokoloa eratzeko Konposizio Irekiko Lan-taldearen bigarren bilera 1997ko martxoaren 10etik 21era bitartean egin zen. Bigarren bilera horretan Lan-taldeko Lehendakariak, Aloisa Wörgetter austriarrak, eztabaidetarako (55) oinarri gisa erabilgarria zen dokumentu bat aurkeztu zuen. Testua Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen 7. iradokizuneko elementuetan oinarrituta zegoen, baita aurreragoko eztabaidetan (1996ko martxoaren 11tik 12ra bitartean) eta gobernuak Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari (56) igorritako iritzietan ere. Saiotetan, Lan-taldeak Lehendakariak prestatutako dokumentua estreinakoz irakurri zuen. Lehendabiziko irakurketarekin izaera ofizialeko (57) *CEDAWrako Hautazko Protokoloaren Proiektua* eratu zuten. Proiektua, Lan-taldearen eztabaiden eta negoziazioen oinarria izango da une horretatik aurrera.

Lan-taldearen hirugarren bilera 1998ko martxoaren 2a eta 13a bitartean egin zen. Saio horietan 1997an Lan-taldeak eratu zuen CEDAWerako Hautazko Protokoloaren Proiektua bigarren aldiz irakurri zen, eta Hautazko Protokoloaren inguruan herrialde jakin batzuek errezeloak agertu zituzten berriro ere. Saio horietan, Giza eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. urtemugan adostasun batera iristeko itxaropena zegoen. Giza eskubideetako Nazio Batuen Agintari Gorenak, Mary Robinson-ek, Batzordearen aurrean Emakumeen Egoera Juridiko eta

(53) Iritzi horiek biltzen dituen dokumentua da REPORT OF THE SECRETARY-GENERAL: *Elaboration of a Draft Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*, E/CN.6/1996/10, 10 January 1996.

(54) *Lan-taldearen Bilera "Emakumeak Diskriminatzeiko Edozein era Saihesteko Konbentzioaren Hautazko Protokoloa Eratzea" (New York, 1996ko martxoaren 11tik 22ra bitartean)*, 2. or. Txosten hau Cristina González Beilfuss Doktoreak egin zuen.

(55) Testu hori E/CN.6/1997/WG/L.1 zenbakipean azaltzen da, 1997ko martxoaren 10ean.

(56) Hautazko Protokoloaren Proiektuaren inguruko iritzi berriak, horien artean espainiar gobernuarena aurki daitezke IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA: *Gobernuen, nazioarteko erakundeen eta gobernuen kanpokoan iritzi berriak Emakumeak Diskriminatzeiko Edozein Era Saihesteko Hautazko Protokoloaren Konbentzioari buruz* E/CN.6/1997/5, 1997ko otsailaren 18a.

(57) Hautazko Protokoloaren Proiektu gainbegiratua, Lan-taldeko Lehendakariak prestatua E/CN.6/1997/WG/L.1 dokumentuan laburbiltzen denarean arabera eta Batzordearen 41. saioaldian egin ziren proposamenak jarraituz.

Sozialaren inguruan egindako hitzaldian, CEDAWerako Hautazko Protokoloa onartzeari emandako garrantzia azpimarratu zuen. Bere hitzetan, horrek "emakumeen eskubideak hobeto babesteko garaian aurrerapauso handia" (58) izango litzateke. Baina, ezin izan ziren itxaropen guzti horiek bete, izan ere jarrerak bata bestearengandik urrun zeuden eta azkenik, Hautazko Protokoloaren onarpena atzeratu egin behar izan zen (59).

Lan-taldearen laugarren bilera 1999ko martxoaren 1etik 12ra bitartean egin zen, eta bilera horretan, azkenik, CEDAWerako Hautazko Protokoloak argia ikusi du. Lan-taldearen laugarren bileran itxaropena jarri zen eta espero zutena bete da. Laugarren bilera hastean, zenbait ordezkarietek CEDAWerako Hautazko Protokoloa behin-betiko onartzeko asmoa azaldu zuten. Europako Batasuna, Protokoloa onartzeko ahalegin gehien egin dituen taldeetako bat, guztiz ziur zegoen CEDAWa onartu zenetik hogeitaz bideragarria zela. Gainera, Europako Batasunak, bazekien Protokoloa oso tresna erabilgarria izango zela "emakumeen giza eskubideen aplikazio indartzeko" (60). Ildo beretik abiatu ziren hainbat ordezkarietzen adierazpenak ere, hala nola: Norvegiakoa (61), Lesothokoa (62), edo Namibiakoa (63). Hala ere, hasieran, Protokoloa onartzearen aldeko adierazpenak egin zituzten arren, lan ikaragarri zaila izan zen, eta ordezkarietzen jarrerak bata bestearengandik urrun zeuden Protokoloaren gairik korapilatsuenetan. Bi astez negoziazio sakon eta zailak izan ondoren, eta gaindiezinak ziruditen oztopoak igaro ostean, azkenik CEDAWerako Hautazko Protokoloa adostasunez onartu zuten Konposizio Irekiko Lan-taldeak eta Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeak. Berau onartzeko Nazio Batuetako Batzorde Nagusira bidali zuten. Organo horrek 1999ko urrian onartu zuen 54/4ko erabakiaren arabera, eta Protokoloa ireki zuten sinatzeko, berresteko eta Estatuek harekin bat egiteko.

(58) *Statement made by the United Nations High Commissioner for Human Rights, Ms. Mary Robinson, to the Forty-Second Session of the Commission on the Status of Women, New York, 3 march 1998, 3. or. Ildo berean garatu zen Britainia Handiak Europako Batasunaren izenean egindakoa, Statement on Behalf of the European Union by the Representative of the United Kingdom of Great Britain and Northern Ireland to the 42nd Session of the Commission on the Status of Women, New York, 2 march 1998.*

(59) Proiektua, 1998ko martxoko saioetako negoziazioetatik atera bezala bildu du *Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeak (E/1997/27) 41. saio aldian bildutakoan eta 42. saio aldian Batzordeak egindako proposamenetan oinarrituz, Lehendakariak aurkeztutako Hautazko Protokolo Proiektu gainbegiratuan E/CN.6/1998/WG/L.2, 1998ko martxoaren 12an. Saio horien gorabeheren inguruan ikus: GOMEZ ISA, F: "Emakumeen aurkako Edozein Diskriminazio Era Saihesteko Konbentzioaren Hautazko Protokoloa: nazioartean emakumeen eskubideak modu eraginkorragoan betetzerantz", Generoari eta Ekintza Positiboko Politikei buruzko Nazioarteko II. Batzarra, Emakunde, Donostia, 1998ko Ekainaren 10etik 12ra bitartean (prentsan).*

(60) *Open-Ended Working Group on the Elaboration of a Draft Optional Protocol to CEDAW, Statement by Dr. Christine Bergmann, Federal Minister for Family Affairs, Senior Citizens, Women and Youth on behalf of the European Union, New York, march 1, 1999.*

(61) Permanent Mission of Norway to the United Nations, Statement made the 1st march 1999.

(62) Permanent Mission of the Kingdom of Lesotho to the United Nations, Statement by Mr. Phakiso Mochochoko, Representative of Lesotho to the Open-Ended Working Group on the Elaboration of a Draft Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination against Women (CEDAW), march 1, 1999, New York.

(63) Namibian Statement on the Open-Ended Working Group on the Draft Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination against Women (CEDAW), Presented by Netumbo Nandi-Ndaitwah, Mp Director-General, Department of Women Affairs, 1 march 1999, UN, New York.

Jarraian, CEDAWerako Hautazko Protokoloaren (64) elementu nagusiak aztertuko ditugu, eta bere onarpen-prozesua hainbeste luzarazi duten eta Protokoloko behin betiko testuak ordezkari guztien exijentzia eta aldarrikapenak asetzen dituen testu bat ez izatea eragin duten gairik korapilatsuenak azpimarratuko ditugu. CEDAWerako Hautazko Protokoloa negoziazio-prozesu zail baten emaitza izan da eta Lan-taldean adierazitako jarrearen arteko adostasunaren fruitua da.

4.2. PROTOKOLOAK AURKEZTUTAKO BABES-MEKANISMOAK

Lehenik eta behin, eztabaida gehien sorrarazi duen gaietako bat honakoa izan da: zein mekanismo eduki behar dituen CEDAWerako Hautazko Protokoloak emakumeen eskubideak babesteko. Lan-taldeko ordezkariak banakako gaztiguen prozedurari dagokionez ados bazeuden ere, adostasun hori desagertu egin zen Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordeak ofiziozko ikerketa-prozedura ezartzeko aukera planteatu zuenean. Estatuaren arteko gaztiguen prozedurak ezartzeko aukerari dagokionez, aukera hori laster bota zen atzera, nahiz eta aditu batzuk prozedura horrek (65) ekar zitzakeen onurak azpimarratu. Egia esan, nazioartean erabili ez den prozedura denez gero, hasieratik bota zen atzera eta ondorengo Hautazko Protokoloa proiektuetan ez zen azaldu.

Azkenik, ikusiko dugun bezala, CEDAWerako Hautazko Protokoloak banakako gaztiguen prozedurak dauzka, baita ikerketa-prozedura ere.

(64) Hautazko Protokoloaren Proiektuari buruzko ikerketa serioenetako eta zorrotzenetako bat da BYRNES, A. and CONNORS, J.: "Enforcing the Human Rights of Women: A Complaints Procedure for the Women's Convention?", *Brooklyn Journal of International Law*, XXI. liburukia, 3. zkia., 1996, 679-697. or. Ikus era berean, SULLIVAN, D.: *The Adoption of an Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*, Center for Women's Global Leadership, 1997. Gainera, Giza eskubideen Institutu Interamerikarrak Protokoloaren Proiektuaren artikuluz-artikuluko iruzkin bat egin du, eta horren inguruan proposamen interesgarriak aurkeztu ditu, GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTU INTERAMERIKARRA: *Hautazko Protokoloa, Lan dokumentua. Emakumeak diskriminatzeke Edozein Era Saihesteko Konbentzioa*, Giza eskubideen Institutu Interamerikarra, San José, 1998.

(65) Theodor Meron-entzat, prozedura horren "garrantzi sinbolikoa" handia da eta Estatu batek beste Estatu bat salatzea ahalbidetzen du emakumeen eskubideak urratu dituelako, MERON, T.: "Enhancing the Effectiveness of the Prohibition of Discrimination Against Women"..., *op. cit.* 217. or. Andrew Byrnes eta Jane Connors iritzi berekoak dira: BYRNES, A. and CONNORS, J.: *The Adoption of a Petition Procedure under the Convention on the Elimination...*, *op. cit.*, 37. or.

A) BANAKAKO GAZTIGUEN PROZEDURA

CEDAWerako Hautazko Protokoloaren inguruko eztabaidak hasi zirenetik adostu zen banakako gaztiguen prozedurak izan behar zutela Protokoloaren muina. Gobernu ordezkariak gehienek onartzen zuten honako mekanismo hau: beraien eskubideak urratu ondoren biktima ziren emakumeei Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen aurrera jotzea ahalbidetuko zien mekanismoa, beraien Estatua salatzeko, nahiz eta prozeduraren xehetasunei dagokienez desadostasunak azaldu. Banakako gaztiguen mekanismoen gairik korapilatsuenak dira CEDAWko xedapenen egiazkotasun aktiboa eta bidezkotasuna.

Egiazkotasun aktiboari dagokionez, hau da, Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen aurrean banakako gaztigu bat planteatzen den dagokionez, Hautazko Protokoloko gairik zailena dela esan behar da. Azkenik, 1998ko martxoko saioetan, adostasun batera iritsi eta Protokoloaren eratze-prozesua amaitzea galarazi zuen. Eztabaida nagusia hau da: "biktimaren izenean" norbaitek Batzordearen aurrera banakako gaztigu bat igor dezakeen ala ez ahalbidetzea da. Herrialde askoren "beldurra" da nazioarteko gobernu kanpoko erakundeek, nazioarteko sarea diren erakundeek alegia, baliabide horiek Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen aurrean eta "biktimen izenean" erabili ahal izatea. Horien artean daude Mexiko, Kolonbia, Kuba, Txina, Egipto, Tunisia, Maroko, Aljeria, India... Aitzitik, herrialde askoren (66) ustez, aukera hori ezinbestekoa da banakako gaztiguen mekanismoak emakume guztien eskubideak defendatzeko balio dezan, eta ez nazioartean tresna horietaz baliatzeko ahalmen ekonomikoak, intelektualak... dituztenenak soilik. Nazioarteko Amnistia izan da Hautazko Protokoloko negoziazio-prozesuaren alde ahalegin gehien egin duen gobernu kanpoko erakundeetako bat eta aukera hori:

"erabakigarria da Hautazko Protokoloak Konbentzioko eskubide-urratzeari benetako irtenbide bat ematea nahi badu. Konponbidea gehien behar dutenak (...) dira sarritan beraien sufri-menduari buruz hitz egiteko eta konponbide bat lortzeko zailtasun gehien dutenak. Ondorioz, giza eskubideen defendatzaileak papera dutenak, gobernu kanpoko erakundeak barne, erabakigarriak dira biktimei beraien eskubideak aldarrikatzen laguntzeko garaian. Emakumeek oztopo jakin batzuk aurkitzen dituzte konponbide bila ari direnean, esate baterako, errepresalia arriskua, alfabetatze maila baxua eta baliabide urritasuna" (67).

(66) Costa Rica, Hego Afrika, Italia, Espainia, Panama, Txile eta beste herrialde batzuen iritziak jakiteko begiratu IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA: *Gobernuen, erakundeen, ... irizirik berriak*, op. cit., 17. or. eta hurrengoak.

(67) NAZIOARTEKO AMNISTIA: *Emakumeen inguruko konbentzioaren Hautazko Protokoloa: nazioarteko mekanismo gaitu baten beharra*, AI: IOR 51/04/97/s, 1997ko abendua, 10. or.

Andrew Byrnes eta Jane Connors-ek antzeko iritzia dute, beraientzat "Hautazko Protokoloko 1. eta 2. artikuluek, gutxienez giza eskubideei buruzko beste Konbentziotakoak bezain zabalak izan behar dute. Pertsona bat eskubide-urratze baten biktima izateak, jaso daitezkeen gaztigu aukerak izugarri murriz ditzake. Emakumeen aurkako egiturazko diskriminazio ugari, agian guztiek, gizarteko emakume guztiengan izan dezakete eragina" (68).

Azkenik, lortu da adostasuna gai honen inguruan. Adostasunak ez ditu asmo guztiak asetzen baina emakumeentzako beraien eskubideak urratu direnean banakako gaztiguak igortzeko oinarri baliagarria da. Horri dagokionez, Hautazko Protokoloko 1. eta 2. artikulua era honetan agertzen dira. 1. artikulua arabera,

"Protokolo horretako Estatu parte-hartzaile batek ("Estatu parte-hartzailea"), Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen zeregina onartzen du ("Batzordea") 2. artikularekin bat datozen gaztiguak igortzeari eta haiek kontuan hartzeari dagokionez".

Ikus dezakegun bezala, 1. artikulua honakoa esan nahi du: Hautazko Protokoloa onartzen duen Estatu orok onartzen duela Batzordeak gaztiguak jasotzeko duen betebeharra. 2. artikulua, berriz, askoz artikulua zailagoa da eta Lan-taldearen barruan eztabaida ugari sorrarazi zuen. Izan ere, 2. artikulua ezartzen du nork igor ditzakeen gaztiguak. Pertsonaren izenean gaztigua igortzerik bazegoen ala ez zen eztabaidaren zergatia, eta hala izatekotan, hura zehazki onartu behar litzatekeen ala ez. Azkenik, 2. artikulua honela dio:

"gastiguak, Estatu parte-hartzaile horrek Konbentzioko edozein eskubide-urratzeren biktima direla dioten partikularrek edo partikularren taldeek aurkez ditzakete horien izenean beti ere eta Estatu parte-hartzailearen legedia errespetatuz. Partikularren edo partikularren talde baten izenean gaztigu bat aurkezten denean, biktimaren baimena beharko da, gaztigua aurkezten duenak biktimaren baimenik gabe jarduteko arrazoirik ezin badu eman behintzat".

Artikulu hori eztabaidatuenetako bat izan da eta Hautazko Protokoloa onartzeko burutu ziren negoziazioak porrot egiteko zorian jarri zituen. 2. artikulua Lan-taldean agertu ziren jarre-aren arteko oreka delikatuaren erakusgarria da. Gainera, artikulu hori izan da, hainbat Estatuk adierazpen interpretatibo gehien eragin dituen artikuluetako bat.

Ikus dezakegun bezala, gaztiguak partikularrek edo partikularren taldeen izenean ere aurkeztu ahal izango dira. Hau da, Estatu parte-hartzaile batek, emakume bakarraren edo emakume talde baten eskubideak urratu baditu, Hautazko Protokoluan eta Batzordearen aurrean beraien kaxa, edo beste pertsona zein erakunde baten bidez ere aurkez ditzakete gaztiguak. Baina gaztigua aurkezten duen pertsonak nahiz haren izenean egiten duenak, Batzordearen aurrean salatutako Estatuaren jurisdikziopean egon beharko du 2. artikulua lauso samar dioen bezala.

(68) BYRNES, A. and CONNORS, J.: *The Adoption of a Petition Procedure under the Convention on the Elimination...*, op. cit., 27. or.

Gaztigua bere izenean igortzen bada, "biktimaren baimena beharko da, gaztigua aurkezten duenak... biktimaren onespenerik gabe jarduteko arrazoirik eman ezin badu behintzat". Norbaiten izenean batzordeari gaztiguren bat igorritz gero, biktimaren baimena ezinbestekoa izango dela ikus dezakegu, eta horrek atzerapen txiki bat eragiten du giza eskubideei dagozkien nazioarteko beste tresnetan. Dena den, baimen-emateari dagokionez, ordezkariak askok ez zuten amore eman nahi. Adostasunera iristeko, baimen beharra Protokoloko testuan erantsia onartu behar izan zen eta ez Batzordearen prozedurazko arauetan.

2. artikuluari dagokionez, lehen esan bezala, adierazpen interpretatibo gehien eragin dituen artikuluetako bat da. Kanadako gobernuaren ustez, "Batzordeak, kasu bakoitzeko egoerak kontuan hartuz, baimenaren inguruan erabakitzeke agintea dauka, eta Batzordeak, 2. artikulua giza eskubideetan tratatutako beste organoen prozedura eta jarduerak bezain ongi ulertu beharko luke" (69). Iritzi berekoak ziren Europako Batasuna eta Afrikako hainbat herrialde ere, hala nola: Ghana, Botswana, Kenya, Lesotho, Malawi, Hegoafrika, Uganda... (70). Ildo berari jarraiki agertu zen Danimarka (Finlandia, Islandia eta Norvegia ere bai), eta gobernuak kanpoko erakundeak 2. artikuluko testuan erantsi ez izanak sortzen zion atsekabea adierazi zuen. Hala ere "partikularren taldeak" esaterari ematen dion interpretazioa "eskubide-urratze baten biktimak direla dioten gobernuak kanpoko erakundeak, Batzordearen aurrean gaztiguak aurkez ditzaketela" (71) da. Bestalde, Txinak, 2. artikulua ahalik eta murriztaileena izatea nahi zuen eta haren ustez, artikulua horrek pertsona jakin batzuei, biktimen egoera kontuan hartuz, galarazi egin beharko lieke "biktimen izenean jardunez beraien probetxurako aritzea... Biktimaren nahia, eta egonez gero, haren ordezkariena guztiz errespetatu behar da, azken horiek biktimaren herrialde berekoak izan behar dute" (72). Argi eta garbi, Txinako ordezkariaren iritzia ahalik eta gehien murriztu nahi du erakunde batek ustezko biktimak ordezkatzeko, batez ere erakundea nazioartekoa bada. Indiako ordezkariaren adierazpen interpretatiboa ildo beretik zihoan. Haren ustez, "baimen" hitzak esan nahi duena "biktimaren gogoz kontra ez litzatekeela aritu behar ezta bere pribatutasun eskubidea urratu ere" (73).

Beste gai korapilatsu bat banakako gaztiguaren prozedurei dagokienek, bidezketasuna da, hau da, Emakumeak Diskriminatzeko Edozein Era Saihesteko Konbentzioan azaltzen diren eskubideetatik zeintzuk diren banakako gaztigua igortzea baimentzen dutenak. Izan ere, horietako askok Estatu parte-hartzaileei izaera programatikoko eskubide asko ezartzen dizkiete. Puntu horren inguruan ere jarrera kontrajarriak agertu ziren, egiazkotasun aktiboarekin erlazionatuta daudenak bezain muturrekoak ez diren arren. Gobernu gehienek iritziz, "giza eskubide guztiak

(69) *Interpretative Statements on the draft Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination against Women*, 4. or.

(70) *Interpretative Statements...*, op. cit., 10. or.

(71) *Interpretative Statements...*, op. cit., 7. or.

(72) *Interpretative Statements...*, op. cit., 4. or.

(73) *Interpretative Statements...*, op. cit., 12. or.

legepekoak direnez gero, batzuk gehiago eta besteak gutxiago, Konbentzioko egiazko xedapen guztiak legepeko moduan ulertzea aholkatu zuen" (74). Gai hori (75) ikertu duten doktrinaren gehiengoak eta gobernuz kanpoko erakundeek ikuspegi bera dute. Hala ere, aipatutako iritzien inguruan adostasunera ezin zelako iritsi, hasierako konponbidetik oso urrun dagoen irtenbide bat hartu zen. Gaztiguak "Konbentzioko edozein eskubide urratzeagatik" aurkeztu ahal izango dira. Hau da, Konbentzioko xedapenetako batzuek soilik defendatu ahal izango ditu Batzordeak, eskubideak biltzen dituzten haiek soilik hain zuen ere, eta Protokoloko 2. artikulua adierazi bezala. Berriro ere gai korapilatsu horrek, hainbat ordezkarietek adierazpen interpreta-tiboak egitea eragin du. Zehazki, Danimarkako ordezkarietaren ustez (Finlandia, Islandia eta Norvegiaren izenean ere bai), Batzordeak "Konbentzioan ezartzen diren egiazko xedapen guz-tiak" (76) onartu ahal izango ditu.

CEDAWerako Hautazko Protokoloko ezarritako banakako gaztiguaren prozedurarik polemiko-enak azaletik aztertu ondoren, prozedura horren funtzionamendua ikusiko dugu. Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen aurrean aurkeztutako banakako gaztiguek lau fase igaro behar dituzte: gaztiguaren onartze-fasea, gaiaren muinaren ikerketa, Batzordearen erabakia eta erabaki horrek izan duen erantzuna.

Banakako gaztiguaren onartze-baldintzei buruz, aztertzen ari garen Hautazko Protokoloko 3. eta 4. artikuluetan bilduta daudela esan behar da. 3. artikulua gaztiguak "idatziz" aurkeztu be-har direla eta "anonimoak ez direla izan behar" dio. Era berean, Batzordeak gaztiguaren bat iker-tu ahal izateko, gaztigu horrek Emakumeak Diskriminatzeko Edozein Era Saihesteko Konbentzioko, zein haren Hautazko Protokoloko Estatu parte-hartzaileetako bati egin behar dio erreferentzia. Bestalde, 4. artikulua onarpen baldintza gisa ezartzen ditu "dauden barne-bir-tarteko guztiak, tresna horiek izapidetza luzeegia ez badute behintzat, eta konponbide eragin-korra eskaintzea zaila egiten ez bazaie bederen". Aldi berean, Batzordeak onartezintzat joko di-tuen gaztiguak izango dira honakoak:

- "Batzordeak dagoeneko ikertu dituen gaiak eta beste ikerketa-prozeduraren baten gaia, zein nazioarteko konponbideren baten gaia dena edo izan dena;
- Konbentzioko xedapenekin bateraezina dena;
- guztiz funtsgabea edo nahikoa berretsi gabe dagoena;
- gaztigua aurkeztea eskubideen gehiegizko erabilpena denean;
- gaztiguaren gaia diren ekintzak Protokoloko Estatu parte-hartzaile horretan indarrean ja-rri baino lehen gertatu direnean, baina ez gehiegikeriek egun horren ondoren jarraitzen dute-nean."

(74) IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA: Gobernuek, erakundeek..., *op. cit.*, 39. paragrafoa, 9. or.

(75) BYRNES, A. and CONNORS, J.: *The Adoption of a Petition Procedure...*, *op. cit.*, 5. or. Eta hurrengoak; NAZIO-ARTEKO AMNISTIA: *Emakumeen inguruko Konbentzioaren Hautazko Protokoloko...*, *op. cit.*, 20. or. eta hurrengoak; GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTU INTERAMERIKARRA: *Hautazko Protokoloko Lanerako Dokumentua...*, *op. cit.*, 16. eta 17. or.

(76) *Interpretative Statements...*, *op. cit.*, 7. or.

Ikus dezakegun bezala, horiek banakako gaztiguen sistema aurreikusten duten giza eskubideen nazioarteko hitzarmenetan normalean azaltzen diren onarpen baldintzak dira.

Batzordeak gaztigua jasotzen duenean, 5. artikulua ahalbidetzen dio, beharrezkoa dela uste badu, Estatu parte-hartzaileari "behin-behineko neurriak hartzea, biktimak edo ustezko eskubide-urratzeen biktimek erremediorik gabeko gaitzak jasan ez ditzaten". Baina Hautazko Protokoloko 5.2. artikulua esan bezala, Batzordeak behin-behineko neurriak hartu izana "ez da gaztiguaren onarpen baldintzari buruzko erabakia, ezta gaztigu horren muinari buruzkoa ere".

Bigarren fasea gaiaren muina aztertzea da, eta Protokoloko 6. eta 7. artikuluek aurreikusten dute. Batzordeak, gaztiguak onarpen baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatzen duenean, Estatu horri igortzen dio gaztigua modu konfidentzialean. Sei hilabeteren buruan, Estatuak Batzordearen aurrean aurkeztu behar ditu "gaia argituko duten idatzizko azalpen edo adierazpenak, eta Estatu parte-hartzaileak zein neurri zentzagarri hartuko lituzkeen zehaztu beharko du" (6.2. artikulua). Batzordeak saio pribatuetan aurkeztu diren gaztiguak aztertuko ditu guztiek emandako informazioa kontuan hartuz.

Gaztigua aztertu ondoren, 7.3. artikulua arabera, "Batzordeak gaztiguari buruz duen iritzia jakinaraziko die bere aholkuekin batera alderdi interesatuei". Horrela, Emakumeen aurka-ko Diskriminazioa Saihesteko Batzordeak Hautazko Protokoloko Estatu parte-hartzaile bati aholkuak emateko duen gaitasuna ikus dezakegu, CEDAWko eskubideren bat urratu duela uste badu. Gainera, Estatu parte-hartzaileak "Batzordearen iritziei merezi duten arreta eskaini beharko die, baita haren aholkuei ere..." (7.4. artikulua).

Gaiaren muinari buruzko erabakia hartu ondoren, Estatu parte-hartzaileak Batzordearen aurrean aurkeztu beharko du "sei hilabeteren buruan, hartu diren neurri guztien inguruko informazioa daukan idatzizko erantzuna" (7.4. artikulua). Gainera, berak ezarritakoa bete ote den ikusteko, Protokoloko 7.5. artikulua ahalbidetuko dio Batzordeari "estatu parte-hartzaileei hartu duten edozein neurriren inguruko informazio gehiago aurkezteko eskatzea... Are gehiago, Batzordeak hala uste badu, Konbentzioko 18. artikuluaekin bat etorritik, aurrerago estatuak aurkeztuko dituen txostenen informazio gehiago ere eska dezake". Ikus dezakegun bezala, Batzordeak zainduko du bere iritzia eta aholkuak errespetatu direla.

B) IKERKETA-PROZEDURA

CEDAWerako Hautazko Protokoloa onartzeko Lan-taldean parte hartu duten herrialde gehienak protokoloan ikerketa-prozedura eranstearen alde azaldu dira. Ordezkaritza askorentzat gairik korapilatsuenetako bat da hori era horretako prozedurek izan ditzaketen eraginen-gatik. Zentzu horretan, Kuba, Txina, India edo Egipto, besteak beste, izan dira ikerketa-prozeduraren aurka indarrik gehien egin dutenak. Txinako ordezkariaren ustez, nahikoa litzateke

"Konbentziorako Hautazko Protokoloan gaztigu-prozedura" (77) ezartzearekin. Aitzitik, beste ordezkari batzuk, horien artean Espainiakoa, ikerketa-prozeduraren guztiz aldekoak ziren. Espainiar gobernuaren iritziz, "Hautazko Protokoloak biak bildu beharko lituzke", izan ere prozedura "osagarriak" dira. Gainera "ikerketa-prozedurak garrantzi berezia zuen emakumeen eskubide-urratze larri eta sistematikoei aurre egiteko" (78).

Ikerketa-prozedura, emakumeen eskubideak babesteko mekanismo nahiko zorrotza da Estatuekin, Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordeari aginte handia ematen baitio, ustez, emakumeen eskubideak era larrian edo sistematikoki urratzen ari diren Estatuetan ikerketak hasteko. Horregatik puntu hau izan da eztabaidagai nagusietako bat. Jarrerak hain ziren desberdinak non azkenean, Lan-taldeko Lehendakariak 1998ko martxoko saioetan 11 bis (79) artikulua proposatu behar izan baitzuen. Artikulu horretan aurreikusten zen opt-out klausula, hau da, Hautazko Protokoloa berresteko garaian, Estaturen batek ikerketa-prozedurak bera lotesterik ez zuela nahi adieraz zezakeen. Konponbide horrek ordezkari guztien gustukoa zirudien, baina Txinako ordezkariak opt-out klausula aurreikusi beharrean, opt-in klausula ezartzea proposatu zuen. Opt-In Klausularen arabera, Estatu bakoitzak, Hautazko Protokoloa berresteko garaian, ikerketa-prozedurak hasteko Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen egitekoa onartzen zuela adierazi behar zuen. Proposamen horren alde azaldu ziren beste zenbait ordezkari, esaterako Kubako ordezkari-tza edo Aljeriako ordezkari-tza. Dena den, ordezkari horiek, bazekiten gutxiengo osatzen zutela eta gai horretan "malgutasunez" (80) jokatzeko prest zeudela adierazi zuten.

Malgutasun horren adibide izan da, azkenean, CEDAWerako Hautazko Protokoloak ikerketa-prozedura bat duela, nahiz eta era berean gutxiengo baten adostasunera iristekotan, opt-out klausula eranstea onartu behar izan zen. Ikerketa-prozedura hori biltzen dute Protokoloko 8, 9 eta 10. artikuluek. 8.1. artikulua honela dio:

(77) IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA: *governuen, gobernuko erakundeen eta gobernu kanpoko erakundeen iritzi berriak Konbentziorako Hautazko Protokoloaren gainean* E/CN.6/1997/5, 1997ko otsailaren 18an, 74. paragrafoa, 16. or.

(78) IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA: *Governuen, nazioarteko erakundeen eta gobernu kanpoko erakundeen... iritzi berriak*, op. cit., 76. paragrafoa, 16. or

(79) Hautazko Protokoloko 11 bis artikulua zen 1998ko saio aldian eztabaidatu bezala. Azkenean, 11 bis artikulua, onartu den Protokoloko 10. artikulua bilakatu da. Horri buruz ikus GOMEZ ISA, F.: "Emakumeak Diskriminatze Edozein era Saihesteko Hautazko Protokoloaren Proiektua...", op. cit.

(80) *Chairperson's Summary of Views expressed and Comments made by Delegations during the negotiations of the Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*, Commission on the Status of Women, Forty-second session, Open-ended Working Group on the Elaboration of an Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women, 12 march 1998, 36 eta 37. paragrafoak, 6. eta 7. or.

"Batzordeak Protokoloko Estatu parte-hartzaile batek Konbentzioko eskubideak era larri eta sistematikoan urratzen dituela dioen informazio fidagarria jasotzen badu, Estatu parte-hartzaileari informazioa aztertzeko gonbitea egingo dio eta horretarako, informazio horri buruzko oharra aurkeztu beharko ditu".

Estatuak bere oharra aurkeztu ondoren, eta Batzordeak horiek aztertu ondoren, "Batzordeak bere kideetako bati edo zenbaiti ikerketa bat egiteko agindua eman diezaieke, eta ondoren presako txostena Batzordearen aurrera eramatekoa" (8.2. artikulua). Gainera, Protokoloko 8. artikuluko 2. paragrafoan jarraitzen duen bezala "arrazoiak ematen direnean eta Estatu parte-hartzailearen baimenarekin, ikerketan herrialde horretara bisitaldi bat erants dezake". Ikus daitekeen bezala, Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordeari ikerketarako gaitasunak ematen dizkion prozedura baten aurrean gaude, nahiz eta beti ikerketagai den Estatuaren laguntza behar. Ikerketa hori, bestalde, "konfidentziala" da (8.5. artikulua).

Ikerketa amaitzean, Batzordeak Estatu parte-hartzaileari ikerketaren emaitzak igorriko dizkio, "bere ustez eman behar diren ohar eta aholkuekin batera" (8.3. artikulua), eta Estatuak sei hilabeteko epea dauka Batzordearen aurrera bere ohar propioak aurkezteko (8.4. artikulua). Gainera, Batzordeak Estatuari CEDAWko 18. artikulua aginduz aurkeztu behar duen txostena eransteko eska diezaioke "ikerketaren ondorioz hartutako edozein neurriren xehetasunak..." (9.1. artikulua).

Lehen esan bezala, adostasuna lortzeko, ikerketa-prozeduraren barruan opt-out klausula egotea onartu behar izan zen prozedura mota horrekin bat ez zetozen Estatuak Protokoloa onartzeko aukera izan zezaten ikerketa-prozedurarekin lotura beharrik gabe. Argi dago ikerketa-prozedura Protokoloaren barruan jarri izanagatik ordaindu beharreko prezioa zela. Izan ere, prozedura horrek izan ditzakeen ondorioak Estatu askok ez dituzte inolaz ere onartu nahi. Klausula hori Protokoloko 10. artikulua biltzen du eta horren arabera:

"Estatu parte-hartzaile guztiek adieraz dezakete 8. eta 9. artikuluetan ezarritako Batzordearen betebeharra onartzen ez dutela honako Protokoloa sinatzeko edo berresteko garaian, edota berarekin bat egiteko garaian".

4.3. HAUTAZKO PROTOKOLOAN SALBUESPENAK EGITEA DEBEKATUTA

Lan-taldean luze eta zabal eztabaidatu zen beste gai korapilatsu bat CEDAWrako Hautazko Protokoloan salbuespenik egiterik dagoen ala ez izan da. Ordezkaritza askorentzako, horien artean Espainiakoa, Protokoloak duen prozedurazko izaera dela-eta, beharrezkoa zen hark salbuespenik ez onartzea, izan ere horrek Protokoloaren xede nagusia, hots, CEDAWaren eragin-

kortasuna sendotzea, indargabetuko bailuke (81). Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordeko aditu Silvia Cartwright-en hitzak oso esanguratsuak izan ziren. Bere ustez, ikerketa honetan esan bezala, CEDAWak eraginkortasun urria izateko arrazoietakoa bat Konbentzioa berretsi duten Estatuak aurkeztutako salbuespen kopuru handia da. Salbuespen horiek, sarritan, Konbentzioaren eta haren helburuaren aurkakoak dira. Horregatik, eta beti aditu-iritzia jarraituz, hobe litzateke Protokoloa berrestean salbuespenak egitea zehazki galarratea. Hori lortzeko, Protokoloaren testuan Estatuaren kezkak biltzeko ahalegina egin da, salbuespenetara jotzerik izan ez dezaten. Kosta ahala kosta salbuespenak ekidin nahian, Lan-taldeko Lehendakariak, 1998ko martxoko saioetan banatu zuen, hots, Protokoloko artikulua biltzen dituen testuari Estatuari gerta dakizkiekeen arazoak eransteko aukerak ikertzen zituen dokumentu bat (82).

Azkenik, CEDAWrako Hautazko Protokoloak salbuespenak aurkezteko aukera guztiz galarratzen du, eta hori zalantzarik gabe Protokoloaren alderdirik baikorrenetakoa da, izan ere Giza eskubideen Nazioarteko Zuzenbiderako aurrekari ezin hobeia izan daiteke. Protokoloko 17. artikulua dio "Protokolo honetan ez da inolako salbuespenik onartuko".

Artikulu hau izan da berriz ere eta aurreikus zitekeen bezala, adierazpen interpretatibo gehien eragin dituen. Iritzi interesgarrienetakoa bat Aljeriako gobernuarena izan da. Honen ustez, "Estatuak salbuespenik aurkeztu ezinak ez luke aurrekari bat izan behar ez Vienako Hitzarmen Eskubidearen inguruko Konbentziorako ezta orain arte onartua egon den nazioarteko tresnekin bat egiteko ere" eta gainera, 17. artikulua "eskubidekoa eta prozedurazkoa delako eta lortutako adostasuna urratu nahi ez dutelako" (83) onartu dutela azpimarratu du. Iritzi beretsukoak ziren Txinako, Egiptoko, Indiako, Israelgo, Jordaniako (84) ... ordezkariak ere. Horien guztien ustez, Hautazko Protokoloko 17. artikuluan aipatutako salbuespenak egiteko debekua Giza eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen kodifikatze eta garapen progresiborako aurrekaria ez dela izan behar azpimarratu behar da. Azkenik, Estatu Batuek ere adierazi dute beraien "kezka 17. artikulua inguruan", izan ere, "salbuespenak egitea onartzeko jardura zuzen baten aurka dago" (85).

(81) *Chairperson's Summary of Views expressed and Comments made by Delegations during the negotiations of the Optional Protocol...*, op. cit., 51. paragrafoa eta hurrengoak, 9. or.

(82) Balio handiko dokumentua da hau, izan ere Estatuak Hautazko Protokoloa berresteko garaian izan ditzaketen arazoak aztertzen ditu, eta Protokoloaren testua bera arazo horietara moldatzen saiatzen da. Ikus dokumentua bera *Reservations and the Draft Optional Protocol*, march 1998.

(83) *Interpretative Statements on the Draft Optional Protocol to the Convention...*, op. cit., 2. or.

(84) *Interpretative Statements...*, op. cit., 4. or. eta hurrengoak.

(85) *Interpretative Statements...*, op. cit., 21. or.

5. ONDORIO GISA

CEDAWrako Hautazko Protokoloaren ezaugarri nagusiak aztertu ondoren, eta gainditu dituen arazo larriak ikusi ondoren, Protokoloaren eraketak ondorio batzuetara garamatza.

Lehenik eta behin, CEDAWrako Hautazko Protokoloa onartzea, emakumeen eskubideak babesteko mekanismoak indartuz, Konbentzioa, Nazio Batuek adostutako giza eskubideen hitzarmen garrantzitsuenen parean jarriko du. Egia esan, emakumeen eskubideek ez zuten beste edozein eskubide baino babes gutxiago merezi.

Bigarrenik, babes-mekanismo zorrotzagoak egoteak, esaterako banakako gaztiguren prozedurak eta ikerketa-prozedurak, Protokoloa berresten duten Estatuak, CEDAWa hobeto eta modu eraginkorragoan aplikatzeko ahalegin handia egitera behartzen ditu, Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordearen aurrera eramanez izan ez daitezkeen.

Era berean, Emakumeen aurkako Diskriminazioa Saihesteko Batzordeak ematen dituen aholku eta iritziekin CEDAWa hobeto ulertzen lagunduko du, eta batez ere Estatuak hura hobeto eta zorrotzago bete dezaten. Gai horri dagokionez, Konbentzioaren alderdi desberdinen inguruko jurisprudentzia interesgarria garatzeko aukera izango du Batzordeak.

Aipatu beharreko gai bat da emakumeen eskubideen aldeko mugimenduek Hautazko Protokoloaren proiektua (86) eratzeko eta eztabaidatzeko prozesuan izan duen parte-hartze eskasa. Giza eskubideen Institutu Interamerikarrak esan bezala, "emakumeen mugimenduak parte-hartze murriztua izan du Hautazko Protokoloa eratzeko eta negoziatzeko garaian. Berez, lan hori gobernuz kanpoko erakunde gutxi batzuk eta zenbait emakumek burutu dute Protokoloko prozedura tekniko eta juridikoetan jardunez eta ez hasieratik definitutako estrategia politiko bezala". Hautazko Protokoloaren inguruan lobby-lan garrantzitsua burutu duen Institutuak, zera dio jarraian: "prozesua ez da indartuko emakumeen mugimenduak dokumentuaren jabe egin arte, dokumentua berea izan arte..." (87). Puntu horretan, Protokoloaren edukia herrialde

(86) Emakumeen mugimenduaren parte-hartze eskasa bereziki larria izan da Espainiaren kasuan, CEDAWa apenas ezagutzen zuten eta Hautazko Protokoloa eztabaidatzeko eta negoziatzeko garaian ez dute ia parte hartu.

(87) GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTU INTERAMERIKARRA: *Emakumeak Diskriminatzen... op. cit.*, 143. eta 144. or.

desberdinetan zehar hedatzea behar bat da emakumeak beraien giza eskubideen (88) babesaren eraginkortasunerako bidean aurrerapauso bat dela jabetzea nahi badugu. Gainera, Protokoloko 13. artikuluan bertan esaten da "Estatu parte-hartzaile bakoitzak Konbentzioa eta honako Protokoloa aditzera emateko konpromisoa egiten dute..."

Azken gai bat da, *last but not least*, Protokoloa eskubidezko, hautazko tresna bat dela eta, hortaz, CEDAWko parte-hartzaile diren Estatuaren arabera dagoela. Hori dela-eta, Estatu asko, argi eta garbi emakumeen egoerari oztopo gehien jartzen dietenak eta Protokoloa eratzerakoan zailtasun gehien planteatu dituztenak, tresna hori onartzeko garaian uzkur ageri dira. Ez dugu ahaztu behar, Hautazko Protokoloko 16. artikulua dioenaren arabera, "hamargarren berrespen- edo atxikipen-tresna eman eta hortik hiru hilabetera" jarriko dela indarrean. Beraz, munduko emakume guztiak CEDAWrako Hautazko Protokoloko mekanismoez baliatu daitezkeen bide luzea geratzen da, eta bide luze horretan, iritzi publikoaren presioa eta emakumeen mugimendua beharrezkoak dira Estatuak Protokoloa ahalik eta azkarren onar dezaten. Nazio Batuen Erakundeko Batzorde Nagusiak Protokoloko testua 1999ko urrian onartu ondoren, gobernuak presio egiteko garaia hasiko da, batez ere gai horiei dagokienez oztopo gehien jarri dituztenei, CEDAWrako Hautazko Protokoloko xedapenak berretsi eta onar ditzaten. Jokoa dagoena Emakumeen giza eskubideak dagokien tokian jartzea da. Guztion betebeharra da hori lortzen laguntzea.

(88) Onartu beharra dago kasu horretan Espainiako gobernuak jadanik hartu dituela Konbentzioko eta Protokoloko edukiak hedatzearen aldeko zenbait neurri. Lehenik eta behin, CEDAWaren eta haren Protokoloaren ingelesezko eta gaztelerazko bertsioak editatu ditu, *Emakumeak Diskriminatzeiko Edozein Era Saihesteko Konbentzioko Hautazko Protokoloa, Lan- eta Gizarte-gaien Ministerioa*-Emakumeen Institutua, Madril, 1999. Era berean, *Emakumeak Diskriminatzeiko edozein Era Saihesteko Konbentzioko Hautazko Protokoloaren* inguruko Hedapen Mintegia burutu da, Emakumeen Institutua, Madril, 1999ko maiatzaren 25ean, Jane Connors-en laguntzarekin, Nazio Batuetako Gizarte eta Ekonomia gaien Departamentuko Emakumeen aurrerapausorako Sailekoa, eta Aloisia Wörgetter, CEDAWrako Hautazko Protokoloa eratzeko Lan-taldeko Lehendakaria.

ZENBAIT ESTATUK
HAUTAZKO PROTOKOLOARI
BURUZ EGINDAKO
INTERPRETAZIO
ADIERAZPENAK

ALJERIA

Aljeria erabat ados dago Nazioarteko Zuzenbide-Batzordearen ikuspuntuarekin. Ikuspegi horren arabera, eta Vienako Konbentzioan 1969ko Itunen Zuzenbidearen inguruan adostu zen salbuespen-araubideak, duen malgutasunari esker, Itunetan eskatzen dena betetzen du, itun horien xede edo jatorria edozein izanda ere. Izan ere, araubideak itunak biltzen duen testuaren osotasun bermearen eta unibertsaltasun beharraren arteko oreka ezartzen baitu.

Itun jakin batzuek, giza eskubideen inguruko itunak barne, salbuespen-araubide berezi bat eduki beharko luketela dioen argudioak ez dauka legezko inongo oinarririk, salbuespen-araubideak ez duelako ez indargabetzerik ez mugarik onartzen. Aljeriak Emakumeak diskriminatze-ko edozein era saihesteko Konbentzioaren Hautazko Protokoloa urratzea erabaki badu, dokumentua bera aukerazkoa, eta auzibidezkoa delako eta herrialde honek adostasunik hautsi nahi ez duelako izan da.

Hala eta guztiz ere, Aljeriak, Estatuak salbuespenik azaldu ezinak, Itunen Zuzenbidearen inguruko Vienako 1969ko Konbentzioan aurrekaririk ez lukeela ezarri behar azpimarratzen du, ezta ordura arte indarrean egon zen nazioarteko baliabideekiko atxikimendu jardunean ere.

Aljeriaren ustez Protokolo honen zirriborroaren xede nagusia, hots, emakumearen burujabetasuna, zintzoa da izan, eta Aljeria horrekin ados egon arren ez litzateke erabili behar arauhauste larri bat justifikatzeko eta nazioarteko zuzenbidea gauzatzerako orduan. Era berean, salbuespenik ezak hainbat Estatu Protokolo honekin bat egiteko garaian eraginik izango ez dela espero du, eta zinez opa du emakumeen baldintzen hobekuntzan duen garrantzia kontuan izanik, Protokoloak ahalik eta onarpenik zabal eta unibertsalena izatea.

AUSTRALIA

Australiak arreta handiagoz aztertuko du testua eta barne kontsultak egingo ditu. Nazioaren bategite prozesuek nazio mailako kontsulta ugari eskatu ohi dute itun baten aldeko edozein neurri hartu aurretik, Diputatuen, Estatuaren eta gure sistema federaleko lurralde-gobernu zein komunitate osoaren parte hartzea barne. Itun horrek ere, noski, prozedura hori jarraituko du.

AUSTRIA

Austriako ordezkariak Europako Batasuneko Lehendakariak aurkeztutako adierazpena guztiz berresten du.

Gainera, Hitzarmenak berau sinatu duten Estatuak eskubide horiek zuzenean urratzen dituzten jarrerak ekiditea ez ezik, bertan biltzen diren eskubideak bermatuko dituzten neurriak hartzea ere eskatzen duela nabarmendu nahi du Austriak.

Beraz, Austriako ordezkariaren iritziz, Batzordeak, Konbentzioan biltzen diren oinarritzko xedapen bakoitzari buruzko gaztiguak onartu beharko ditu eta halaber, sinatu duen Estatuak bere betebeharrak burutzeko beharrezko neurriak hartu dituen ala ez ikertu beharko du, Konbentzioak zehaztu bezala. Hori dela eta, Hautazko Protokoloko 2. artikuluan azaltzen den "eskubideak" hitza interpretatzeko garaian, Batzordeak inspirazio iturri gisa arraza-diskriminazioa saihesteko Batzordearen jurisprudentziara jotzeko aukera izango luke.

Bestalde, Austriako ordezkariaren ustez, gaztigu bat aztertzerakoan, Batzordea eragindako alderdien esanetara jar daitekeela uste du, Konbentzioak hitzartu bezala, eskubide eta betebeharrak errespetatuak izan daitezen oinarri bat ezartzeko.

KAMERUN

Lehendakari anderea: Lehenik eta behin, bat egin nahiko guke gure Batzordeak burutu dituen lan guztietan zehar agertu duzun adoreagatik zoriondu zaituztenekin, izan ere, adore horri esker lortu ditugu gaur ospatzen ari garen emaitzak. Nire herrialdea, Kamerun, guztiz bat dator Hautazko protokolo honekin eta LANEko partaide denez, bertako arauak ezartzeko kontrol-mekanismoa onartzen du.

Hala ere, Protokolo honetako 17. artikuluari dagokionez, zenbait ordezkariak agertutako errezelak ulertzen ditugu, izan ere salbuespen printzipioa nazioarteko baliabide ezberdinetan azaltzen da, eta baliabide horiek ahalbidetzen diete Estatuak aipatutako hitzarmenak egiaztatzeaz gain, desadostasuna eragiten dieten xedapenak salatzea ere.

Baina emakumearen sustapenaren kasuan konkretuki, Protokolo honek hedadura ona izatea espero dugu emakumearen eta haren oinarritzko eskubideen sustapenean eragina duten guztiek Protokoloaren legezkotasuna uler dezatela, bereziki bertako 17. artikulua.

KANADA

Kanadaren iritziz, Estatu sinatzaile baten ekintza edo hutsegiteren batek CEDAWk (Emakumeak diskriminatzeko edozein era saihesteko Konbentzioak) biltzen dituen eskubide edo betebeharrak haustea eragiten badu, Protokoloak dioenaren arabera gaztigu edo ikerketagai bihur daiteke.

2. artikulua biltzen duen gaitasunari buruz, Kanadak, CEDAWko Batzordeak kasu bakoitzaren gorabehera berezien baitan baimena emateko nahikoa aginte duela usteaz gain, Batzordeak 2. artikulua giza eskubideen gainerako hitzarmenak ikuskatzeko ardura duten organoen prozedura eta jarduerak bezain era mesedegarrian interpretatu beharko lukeela ere pentsatzen du.

TXINA

Txinako gobernuak emakumeen eskubideen babesari garrantzi handia ematen dio eta nazioarteko komunitateak emakumeen diskriminazioa ekiditeko egiten dituen ahaleginen alde ageri da, Emakumeak Diskriminatzeko Edozein Era Saihesteko Hautazko Protokolo bat egitea barne. Txinako ordezkariak Hautazko Protokolo honek adostasun handia izatea espero du gizarte-, kultura- eta historia-inguruabar desberdinak dituzten Estatuaren artean, emakumeen aurkako bazterketa ekiditen lagun dezaten.

2. ARTIKULUARI BURUZ:

2. artikulua biktimek Batzordeari gaztiguak igorri ahal izatea bermatu behar du eta biktima horiek babesteko ardura dauka, era berean, biktimen izenean jardunez, zerikusirik ez duten pertsonen biktimen egoera bereziari probetxu ateratzea ekidin beharko luke.

4. ARTIKULUARI BURUZ:

Oro har, politikak eragindako gaztiguak onartezinak dira Nazio Batuen barrutiak giza eskubideen inguruan biltzen dituen gaztigu-prozeduren artean. Giza eskubideen babes egokia printzipio garrantzitsua da eta era berean Protokolo honetan laburbiltzen diren prozedurei aplikatu beharrekoa. Horren inguruan, Txinako ordezkariak artikulua honetako 2. paragrafoko 4. azpiparagrafoan azaltzen den "gaztigu eskubidearen gehiegizko erabilera" esaerak helburu politikoa duten gaztigu guztiei eragiten dietela uste du.

8. ARTIKULUARI BURUZ:

Ikerketa aurrera eramateko gizarte- eta finantza-baliabide ugari behar direla ikusita, ikerketa hori emakumeen eskubide-urratze larria eta sistematikoa jasan duten kasuetan soilik burutu beharko da. Txinako ordezkariak emakumeen eskubide-urratze kasu bakar bat "urratze larri eta sistematikoa" ez litzatekeela izango uste du, artikulua honetako lehen paragrafoak dioenaren arabera.

11. ARTIKULUARI BURUZ:

Protokoloa sinatzen duten Estatuak gizabanakoa babestu behar dute Batzordeari gaztigu bat igortzearen ondorioz gerta litezkeen tratatu txar eta mehatxuengandik, Protokoloan adierazi bezala. Dena den, sinatzen duten Estatuak xedapen hau nazio-legeriaren barrutian betearazi beharko dute. Gainera, xedapen honek ez du oztopoa izan behar sinatzen duten Estatuak edozein delitu egin edo legea hautsi dutenen aurkako neurri legalak hartzeko gaztigu-igortzeak dirauen artean.

13. ARTIKULUARI BURUZ:

Emakumeen estatutuaren hobekuntzak arlo desberdinetan ahaleginak egitea eskatzen du, Protokolo eta Konbentzioaren publizitatea barne. Horregatik garapen bidean dauden herrialdeek bertako emakumeen aldeko baliabideak izendatzeko eskubidea dute, beraien egoera berezia kontuan hartuz.

17. ARTIKULUAREN GAINEAN:

Itun-zuzenbidearen inguruko Vienako Konbentzioak, salbuespenak argi jasotzen dituzten xedapenak aipatzen ditu. Xedapen horiek aldeztu aurretik adostutako giza eskubideei buruzko hitzarmenei ere eragiten diete. Txinako ordezkariak xedapen horiek Protokolo honi ere betearazi beharko litzaizkiokeela uste du. Hala ere, eta Lan-taldearen barruan adostasuna lortzeko asmoz, Txinako ordezkariak Protokoloko salbuespen ezaren klausula onartu zuen, klausula horrek giza eskubideen inguruan gerora egin litezkeen zirriborroetan aurrekaririk ez ezartzeko baldintzarekin.

DANIMARKA (BAITA FINLANDIA, ISLANDIA ETA NORVEGIAREN IZENEAN ERE)

Finlandia, Norvegia, Islandia eta Danimarkaren izenean mintzo naiz. Europako Batasuneko Lehendakariak aurkeztu duen adierazpenekin ados bagaude ere, gaur adostu dugun Protokoloari buruzko interpretazio ohar batzuk egin nahiko genituzke.

Orain hiru urte negoziazioak hasi zirenetik, Protokoloaren barrutian Gobernuak Kanpoko Erakundeei arreta berezia eskaini behar zaiela defendatu dugu, 2. artikuluko gobernu kanpoko erakundeei aipamena barne, eta halaber erakunde horiek beraien kasa Batzordeari gaztigu bat igortzeko aukera ere. Nahiz eta proposamen hau onartzeko adostasunik ez zegoela onar-

tzen dugun, 2. artikuluko "gizabanakoen taldea" esaerak lasaitzen gaitu, izan ere gure interpretazioaren arabera, lege-hauste bat jasan duten Gobernu Kanpoko erakundeek, Batzordeari gaztigua aurkez diezaioke.

Gure ordezkartzen iritziz berebiziko garrantzia duen beste alor bat, Protokoloko 2. artikuluan erabiltzen den "xedapen" hitza da. Hitz horrekin gaztigu eta ikerketa prozesuek Konbentzio guztia bere barne hartzen dutela ulertzen dugu, eta hortaz, Batzordeak Konbentzioan laburbiltzen diren xedapen guztiei buruzko gaztiguak onartuko ditu.

Poztu egiten gaitu "eskubideak" hitzaren inguruko interpretazioak bat datozela ikusteak, izan ere, berau giza eskubideei buruzko beste bitarteko batzuek ezarri duten jardunaren arabera interpretatuko dela diote eta horrek, Konbentzioaren osotasunari eragiten dio. Zentzu horretan, arraza-diskriminazioa saihesteko Konbentzioko (CERD) 14. artikulua aipatu behar dugu, baita CERDeko Batzordearen lana ere. Beraz, gaztigua igortzean edo ikerketa bat hastean, CEDAWko Batzordeak onarpen orokor eta zabala duen interpretazio horri eutsiko diola espero dugu.

Batzordeak Estatutuaren betebeharrak gizabanakoei edo gizabanakoen taldeei eskubideak ematen dizkietela onartzen duen neurrian soilik lortuko du emakumeen giza eskubideak sustatu eta betearazteko bitarteko eraginkorra izatea eta emakumeekiko diskriminazio era guztiak saihestea.

9. artikuluko 2. paragrafoari buruz, "informatzea" hitza, ikerketak dirauen bitartean sinatzen duten Estatuaren eta Batzordearen arteko elkarrekintza gisa ulertu behar dela uste dugu.

EGIPTO

Lehendakari anderea,

Egiptoko Arabiar Errepublikako ordezkariak parte-hartze zuzena izan du "hautazko" Protokoloa, Emakumeak Diskriminatzeko Edozein Era Saihesteko Hitzarmen bat prestatzeko ardura zuten lan-taldeen negoziatioetan. Egiptoko ordezkariak Protokoloa onartzearen alde dauden gainerako ordezkariarekin bat dator. Hori lau urteen zehar ordezkariak guztiek lan-taldeen burututako lanaren emaitza da eta hemen, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu lan-taldeen lehendakariari, Victoria Sandru andereari alegia, eta idazkariari, gizon zein emakume guztiei egin duten lanagatik, izan ere lan horrek Protokoloa onartzeko bidea erakutsi digu.

Egiptoko Arabiar Errepublikako ordezkariak, Protokoloaren proiektuaren negoziatioa bukatutzat emateak, Nazio Batuetako Batzar Nagusiko paperean esaten zenari eusteko garaian aurrerapauso garrantzitsua izatea espero du Zuzenbidea nazioarteko komunitatean sustatzeko

eta milurteko berrian sartzeaz gaudenean emakumeen eskubideak indartzeko. Une garrantzitsu hau aprobetxatuz Egiptoko ordezkariak argi geratu behar duten zenbait oinarrizko jarrera azaldu behar ditu:

LEHENENGOA:

2. artikulua gainean, artikulua berak dioen bezala, Egiptoko ordezkariak gizabanako edo lagun talde baten izenean idazkiak aurkezteko aukera, ezohiko eta derrigorrezko egoerek baldintzatzen dutela dio, eta egoera horretan horiek aurkezteko biktimaren baimena lortzea ezinezkoa dela. Gainera, "gizabanakoen taldeak" esamoldeak, pertsona bakoitza hala onartua dagoen taldearen barruan kokatzen du.

BIGARRENA:

Zortzigarren artikulua bigarren pasarteari dagokionez, Egiptoko ordezkariaren ustez, lan-taldeek eraso fisikoei erreferentzi egitean pluralaren marka erabiltzeak lege-hauste hori behin eta berriro gertatzen dela adierazten du.

HIRUGARRENA:

Hamaikagarren artikulua dagokionez honakoa adierazten du: Egiptoko ordezkariak nazioko lege xedapenetan adierazitakoaren arabera Estatuaren betebeharra da biktimen idazkiak aurkezteko dituztenen edo biktimak ordezkatzeko dituztenen aurkako tratua txar edo mehatxuak saihestea.

Egiptoko ordezkariak hamazazpigarren artikulua gehitzea onartu du, Protokoloak administrazio eta hautazko izaera duelako. Hori dela eta, ez da aurrekari gisa ulertu behar.

Lehendakari anderea,

Egiptoko Arabiar Errepublikak adierazpen hau Protokoloko dokumentu ofizialei eransteko eskaria egiten du.

ALEMANIA (EUROPAKO BATASUNAREN ETA HERRIALDE ELKARTUEN IZENEAN)

Hautazko protokoloko 2. eta 8. artikuluen inguruko adierazpen hau aurkezteko ohorea nirea da Europako Batasuneko partaide diren Estatu ordezkaritzen izenean, baita EBri atxikitako Europa Zentral eta ekialdeko herrialdeen izenean ere, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Polonia, Errumania, Eslovakia, Eslovenia; Zipreko estatu elkartua; Suitza, EMLEko (Europako Merkataritza Librearen Elkartea) partaide eta Islandia eta Liechtenstein, Europako Esparru Ekonomikoko eta EMLEko partaide.

(a) Aipatutako ordezkaritzek 2. artikuluko bigarren esaldia indarrean dauden giza eskubideen inguruko itunak ikuskatzeko ardura duten organoek biltzen duten jardunen arabera interpretatzen dute. Bertako arauetan eta prozeduretan islatzen da hori, eta bereziki giza eskubideen Batzordeak duen prozedura-araubidean (90(b)Araua), arraza-diskriminazioa saihesteko Batzordearen prozedura-araubidean (91(b)Araua), torturaren aurka Batzordeak duen prozedura-araubidean (107(1) (b) Araua).

(b) Aipatutako ordezkaritzek, nazioarteko zuzenbidearen printzipio orokorrekin bat etorriz, 2. artikuluko lehen esaldian aipatzen den "urratze" hitza, zein 8. artikuluko lehen paragrafoan aipatutako "urratzeak" hitza, Konbentzioak biltzen duen edozein eskubiderekin erlazionaturik daudenean, eragindako Estatu sinatzaile baten ekintza edo hutsegite bati erreferentzi egiten diotela ulertzen dugu.

GHANA (BAITA BOTSWANA, KENIA, LESOTHO, MALAWI, MAURIZIO, NAMIBIA, HEGOAFRIKA, UGANDA, TANZANIAKO ERREPUBLIKA BATUA, ZAMBIA ETA ZIMBAWEREN IZENEAN ERE)

Lehendakari anderea: Lehenik eta behin, saio honetan ondorioren batera iristeko zuk nahiz zure kolaboratzaileak, Victoria Sandruk, egindako ahaleginak miresten ditugula adierazi nahi dugu. Zuen betebeharra ez dela erraza onartu beharra daukagu, izan ere ordezkaritza guztien gustuko hautazko protokoloaren zirriborroa lortu behar baituzue.

Gainerako ordezkaritzen antzera, Estatu gisa dugun jarrera defendatzera gatoz bilera honetara. Badakigu ordezkaritzak prest zeudela saio honetan bai Hautazko protokoloaren lana buhurtzeko, baita zirriborroa adostasun bidez onartzeko ere. Ordezkaritza jakin batzuek adostasuna iristeko kontzesioak egin zituzten. Egia da gaur onartutako zirriborroa ez dela inondik ere akatsik gabeko testua, izan ere ez baita zenbait gai garrantzitsu eta korapilatsu lantzeko mekanismorik zehazten, emakumeen eskubide-urratzea ekidingo luketen legeko irtenbideak lortzeko balio duen mekanismorik, alegia.

Gure kezka nagusia 2. artikuluaaren ingurukoa da, orain duen formulazioaren arabera frogaren karga biktimaarengan gera litekeelako. Gure herrialdeetako errealitatea eta legearen eza-gutza eskasa kontuan hartuz, emakume gehienek ez dituzte ezagutzen beraien lege-jurisdikzio-ei dagozkien eskubideak. Are gutxiago giza eskubideak bermatzeko nazioarteko bitartekoek onartzen dituzten eskubideak. Artikulu honek are zailagoa egiten du emakumeak Hautazko protokoloan sartzea.

Hori esanda, Lehendakari anderea, Hautazko protokoloko artikulu jakin batzuei buruz guk egiten dugun interpretazioa adierazi nahi genuke:

2. ARTIKULUA:

Baimena ematea herrialde bakoitzeko barne-irtenbideak agortuz konpon litekeela uste dugu, baina inoiz ez lituzke baztertuko ordezkari bat izateko beraien lege-baimena emateko gai ez diren eta beraien eskubide-urratzea jasan duten biktimak.

2. artikuluko bigarren esaldia, indarrean dauden giza eskubideen inguruko itunak ikuskatzeko ardura duten organoen jardueren arabera interpretatu behar dela uste dugu eta Batzordeak, bere prozedura-arauak sortzeko garaian Konbentzioko berezitasunak kontuan hartuko dituela.

8. ARTIKULUA:

"Larri edo sistematikoa" esamoldeak zentzu zabala izango du Batzordearen zereginetan eraginik izan ez dezan.

9. ARTIKULUA:

Artikulu honen interpretazioak ez du Batzordea eta eragindako Estatu sinatzaileen arteko elkarrizketa baztertuko.

INDIA

Nire ordezkaritza poztu egiten da azkenean, emakumeak diskriminatzeko edozein era saihesteko Konbentzioaren hautazko protokoloaren zirriborroa egiteko ardura beregain zuen Lan-taldea Protokoloa onartzeko prest dagoela ikusita, izan ere azken lau urteak eman ditugu Protokolo horretan lanean. Ondorio hauek berezkoa dutenez, ez dituzte gizabanako guztiak

asetzen baina bai taldea. Hala ere, Protokoloak bere helburua lortuko duela uste dugu, hots, mekanismo bat sortzea emakumeen aurkako diskriminazioa saihesteko ardura duen Batzordeak, bere oharrak egin eta aholkuak eman ditzan Konbentzioan bildutako emakumeen giza eskubideak urratzearen inguruko banakako salaketen inguruan. Mekanismo hori eskubide horiek barne-baliabideen bidez konpontzen ez direnerako behar da, horrela, Konbentzioko helburuak lortzea bultzatuko du. Emakumeen diskriminazioa leku guztietan dagoenez eta hain zabal denez, honelako baliabide batek jadanik lehendik dauden konponketa eta babes mekanismoak indar ditzake.

Protokoloaren inguruko zenbait ohar azpimarratu nahiko genituzke:

Bigarren artikuluan, hedadura handiko "gaitasun" baten beharra onartzen dugu, emakumeek edozein arrazoi dela-eta Batzordeari beraien eskubide-urratzearen edo diskriminazioaren berri eman ezin duten kasuetan. Batez ere, eskubide-gizarte bat dagoenean, Konbentzioko eskubideen urratze baten biktimen izenean ari direnek beraien jarrera justifikatuko duen jakinmina azaldu beharko dutela pentsatzen dugu. Honek lege-aholkularien kasuan ezik, egileak herrialdeko zuzenbide-prozesuarekin zerikusia eduki beharko lukeela esan nahi du. Dena den, eragindako gizartearekin zerikusia duela azaldu beharko du. "Baimena" biktimen interesen aurka ez jardutea esan nahi du eta bere intimitate-eskubidea ez urratzea biktimak hala jokatzearabakitzen badu.

4 (1). artikuluan "arrazoirik gabe luzatua" eragindako herrialdeko lege-kausen ohiko abiada kontuan hartuz interpretatu behar da. Orokorrean, atzerapena bera diskriminatzailea dela erakutsi beharko da. 4 (2). artikuluan, eta batez ere (iii) eta (iv) azpiparagrafoak interpretatzeko garaian, Batzordeak arrazoi politikoa duten edo nahikoa oinarri ez duten erreklamazioak ekidin beharko ditu, batez ere arrazoiak nazioarteko izaera badute eta prozedurari etekina atera nahi badio emakumeen eskubideak babestea ez beste helburu batzuekin.

7 (4). artikuluan, Estatu sinatzaileen iritzia eskatzerakoan, Batzordeak kontuan hartu beharko ditu herrialde jakin batzuek eta batez ere, garapen bidean dauden herrialdeek dituzten logistika zailtasunak, urrutitik informazioa lortzeko edo hizkuntza eta kulturaren alor desberdinen bidez.

10. artikuluan, konpromisoak direla eta, norbere burua baztertzearekin bat gatoz. Gure iritziz, Protokoloak bi prozedura desberdin bateratzen ditu, erreklamazioena batetik eta ikerketena bestetik. Bi Protokolo desberdin izan beharko lukete eta ez bakararra.

Hala ez bada, ikerketa mekanismoa Protokolo osagarria izan liteke. Baztertze klausula batek osagarri hau hobeto hartuko luke beregan.

Inolako baldintzarik gabe onartzen dugu Protokoloaren azken zirriborroa. Hori dela eta, eta honen gaia emakumeak direnez, salbuespenik eza azaltzen duen 17. artikulua onar dezakegu.

Hala ere, guk nazioarteko zuzenbidearen konbentzioetatik aldendu nahi izatea ez da printzipioen konpromiso bezala ulertu behar, ezta etorkizuneko baliabideen oinarri gisa ere.

INDONESIA

Indonesiak emakumeak diskriminatzeko edozein era saihesteko Konbentzioaren Hautazko protokoloa eta bereziki 2 eta 11. artikuluen ezartzeari buruz Indonesiak egiten duen interpretazioa aurkezteko ohorea daukat.

Lehenik eta behin, Indonesiako ordezkaritzak Hautazko protokoloaren zirriborroa dagoen horretan onartzen duela adierazi nahi nuke eta zinez espero dugu zirriborroaren aurkezpenak Hautazko protokoloaren onarpen eta berreste prozesua azkartuko duela.

2. artikulua praktikan jartzerakoan, Indonesiako gobernua biktimaren baimena eskatzen duen printzipioaren aldekoa dela azpimarratu nahiko genuke. Gure ustez, biktimek Nazio Batuek ezarritako nazioarteko mekanismo baten bidez konponbidea aurkitu nahi duten ala ez beraien kasa erabakitzeko askatasuna eduki behar dute. Nazioarteko mekanismo hori, emakumeak diskriminatzeko edozein era saihesteko Konbentzioaren Hautazko protokoloa da. Erabakiak hartzeko askatasun hori errespetatu behar da. Gainera, emakumeek beraien eskubideen inguruko informazio guztia jaso dezaten, Gobernuak bere gain hartuko du Gobernu Kanpoko Erakundeekin batera, Nazio Batuek giza eskubideak gordetzeko mekanismo guztien berri emateko ardura, baita Nazio Batuetako giza eskubideen konbentzioen berri ematekoa ere, CEDAWko Hautazko protokoloan laburbildutako mekanismoa barne.

Nahiz eta 2. artikulua, biktimaren baimenarekin, banakako gaztiguren prozedurak Nazio Batuei igorri behar zaizkiela ezartzen duen, Hautazko protokoloaz gaindiko beste gaztiguren bide batzuk daudela azpimarratu nahiko genuke, esaterako giza eskubideen Batzordeko 1503. prozedura.

Lehendakari anderea, biktimaren baimena lortzea ezinezkoa den egoerak eman daitezkeela onartzen dugu eta beraz, baita Hautazko protokoloa ezartzea beharrezkoa diren egoerak ere. Kasu horietan, nire ordezkaritzak giza eskubideen itunak ikuskatzeko ardura duten organoek biltzen duten prozedura-araubideetan dagoenaren arabera interpretatu beharko da, batez ere giza eskubideen Batzordearen prozedura-araubidea (90(b) araua), arraza-diskriminazioa saihesteko Batzordearen prozedura-araubidea (91(b) araua), torturaren aurkako Batzordearen prozedura-araubidea (107(1) (b) araua).

11. artikuluari dagokionez, honakoa esan nahi nuke: nire ordezkaritzak artikulua hau Indonesiako Gobernuak emakumearen eskubideen sustatze eta babesaren inguruan duen politikaren ildo berekoa dela. Indonesiako Gobernuak modu eraginkorrean ari da lanean lekukoak

babesteko lege-zirriborro baten bidez beraien aitortpena aurkezten duten lekukoak babesteko. Zirriborro horren behin betiko bertsioa laster bukatuko dute. Neurri legal honetaz gain, Indonesiak Genevako Giza eskubideen agintari Gorenarekin elkarlan teknikoan lekukoak babesteko programa ofiziala ezarriko du fiskal nagusiaren bulegoko funtzionarioentzat eta polizia nazionalentzat. Gobernuak badaki eragindako emakumeei beraien eskubide-urratzearen ordaina eskatzeko adorea eman behar diela, baita lekukotza egiteko eta legearen aurrean froga berriak aurkezteko ere, horrela legea betetzeko prozedurak aplikatu daitezkeen eta delituaren egileak epaituak izan daitezkeen.

Gizabanakoak edo gizabanakoen taldeari Hautazko protokoloak onartzen dizkien eskubideak erabiltzea errespetatuz, nazioko legeria errespetatzea azpimarratu behar dugu, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 29. artikulua dioenaren arabera.

Amaitzeko, Hautazko protokoloa ahalik eta azkarren onartu eta berrestua izatea espero dugula errepikatzen dut emakumeen eskubideak babesteko baliabide eraginkorra izan dadin.

ISRAEL

Begirune osoz, zerbait argitu nahiko genuke zenbait artikuluri buruz.

Lehenik eta behin, 2. artikuluari buruz, "gizabanakoen taldea" baldintza, bere izenean aipatutako taldeko partaide bakoitzaren baimen bezala aurkeztutako erreklamazioa ulertzen dugu.

Bigarrenik, 8. artikuluan bildutako "urratze larri eta sistematikoak" esamoldeak, gure iritziz, behin gertatutako erasoak baztertzeari egiten dio erreferentzia.

Gainera, 11. artikuluan onartutako Estatuaren ardura "bere jurisdikziopeko gizabanakoak tratu txar edo mehatxuak jasaten ez dituztela bermatzeko" Estatu horretako legezko barrutian aplikatzen da.

Amaitzeko, 17. artikuluko salbuespenik eza klausulak etorkizuneko bitarteko batentzako aurrekaririk ez ezartzea eskatzen dugu.

ITALIA

Italiako ordezkariak Europako Batasuneko Lehendakariak aurkeztutako adierazpenaren aldekoa da.

Protokoloa lorpen historikoa dela uste dugu, emakumeei beraien eskubideak defendatzeko bitarteko gisa funtzionatuz laguntzen baitie, nire ordezkaritzak Hautazko protokolo zorrotzago bat nahiago izango luke.

Batzordearen jurisprudentzian puntu korapilatsuenak interpretatu ahal izango dira, giza eskubideen inguruko itunak ikuskatzeko ardura duten organoen praktiken arabera, baita CEDAWko berezitasunen arabera ere, nazioarteko beste bitarteko batzuk baino giza eskubide sozial eta kultural gehiago tratatzen dituzte.

Italiako ordezkaritzak gizabanakoen taldeak eratzeak Gobernuz Kanpoko Erakundeek beraien kasa parte hartzea barne hartzen duela uste du, eta ez biktimen izenean soilik.

Gobernuz Kanpoko Erakundeak eta beste zenbait bitartekok biktimen izenean aritzeko aukera duten kasuei dagokienez, Batzordeak biktimaren baimenik gabe jardutea ahalbidetzen dien xedapenaren interpretazio zabal bat adostea espero dugu, gaztiguak onartuz biktimak zuzenean jardun edo beraien baimena ematea oso zaila den kasuetan ere onartuz, eta ez ezinezkoa den kasuetan soilik.

Italiako ordezkaritzak ulertzen du 2. artikuluan jasotako "eskubideak" hitza Konbentzioan bildutako oinarritzko xedapen guztiei erreferentzi egiten diela eta alor sozial eta kulturei eragiten diela. Horrenbestez, Batzordeak gaztigu bat onartuko duela uste dugu eskubide-urratze zuzen bat gertatzen denean, eta baita Estatuak CEDAWan biltzen diren betebeharretakoren bat betetzen ez duenean ere.

Badakigu Protokoloa onartzea gobernuen ordezkarien eta legelari trebatuen zein gobernuz kanpoko erakunde eta emakumeen erakundeek egindako presioaren eta burututako lanaren fruitua dela.

Horrek, areagotu egiten du Protokoloa azkar berretsi eta haren xedapenak modu eraginkorrean ezartzeko orduan dugin erantzukizuna.

Ziur gaude Protokoloa egiten gurekin lanean aritu diren emakume-taldeek lanean jarraituko dutela emakumeen giza eskubideak guztiz betetzen direla ziurtatzeko eta bitarteko indartsuago bat bihur dadin.

JAPONIA

Japoniako ordezkaritzak puntu hauei buruzko interpretazioa aurkeztu nahi du:

2. ARTIKULUA:

"Norbaiten izenean" esamoldea giza eskubideen inguruko beste bitartekoen prozedurek ezarritako jardunaren arabera interpretatzen da. Gainera, nire ordezkaritzak "gizabanakoen taldea" taldeko gizabanako bakoitza identifikatzeko erabiltzen dela ulertzen du.

8. ARTIKULUA:

Batzordeak hasitako ikerketak CEDAWk biltzen duen Hautazko protokoloa sinatzen duen Estaturen batean eskubide-urratze larri edo sistematikoak gertatzen direla dioen informazio fidagarria jaso ondoren emakumeak diskriminatzeko edozein era saihesteko, ez dira kasu bakar bati edo ustekabeko batean aplikatu behar.

11. ARTIKULUA:

Artikulu honen helburua 2. edo 8. artikuluen arabera Batzordearekin harremanetan jarri diren gizabanakoen babesa bilatzea da, baina gure ustez, Protokolo hau sinatzen duen Estatu batek ez ditu eduki behar 10. artikuluko xedapenaren arabera egiten duen adierazpenak 8. artikuluen arabera Batzordearekin harremanetan jartzen diren gizabanakoekiko betebeharrak.

JORDANIA

Jordaniak 17. artikuluko salbuespenek eragiten dioten kezka handia adierazi nahi du. Lantaldeak egindako zirriborroan, 17. artikulua Hautazko protokolotik salbuespenak baztertzeko ditu. Jordania 17. artikulua, Protokolo honen testuingurua eta izaera dela-eta, Protokoloa berresteko ahaleginen aurkakoa ezezik, itun murriztaile eta alboanitzetan salbuespenak baimentzearen aurkakoa ere bada, Itun-eskubideei buruzko Vienako 1969ko Konbentzioek adierazi bezala. Beste hainbat Estatuk bezala, Jordaniak uste du Konbentzioko araubideak bere osotasunean aurrekari gisa joka dezakeela, Giza eskubideen Europako Batzordeak Temetasch-en kasuan azpimarratzen duen bezala.

Protokoloko 17. artikulua Vienako 1969ko Konbentzioko 17. artikuluan soilik oinarritzen dela dirudi. Artikulu horrek Estatu batek salbuespen bat ezartzekorakoan duen gaitasuna biltzen du ohiko ez diren kasu batzuk bildu arren, eta bere atalean Estatu batek salbuespen bat ezartzea galarazten du itunak hala agindu edo adierazten badu.

Zentzu horretan, salbuespenak galarazterik ez dagoenean, Protokoloaren segurtasunean eraginik izango ez lukeela uste dugu, ezta Protokoloak salbuespenak galaraztea beharrezkoa denik ere. Eskubide zibil eta politikoen inguruko nazioarteko Ituneko Hautazko protokoloa, adiskidetze-Batzorde bat ezartzen duen Protokoloa, Konbentzioko Estatu sinatzaileen edukazioan gerta daitekeen diskriminazio eta arraza-diskriminazio era guztiak saihesteko Konbentzioaren artean sor daitekeen edozein liskar konpontzeko balio duten adibideak dira. Salbuespen guztiek argudio sendoak eduki behar dituzte, bien interesei eragingo liekeela erakusteko salbuespenak formulatzea onartzen bada. Hala erakutsi zuten 1982ko Itsas zuzenbideko Konbentzioak eta Erromako Estatutu berriak. Hala ere, itun alboanitz ez murriztaileak, orokorrean, jardun baimengarri honek araututa aritzen dira eskubideak betetzeko salbuespenik aurreikusi gabe, giza eskubideen hitzarmen unibertsal eta prozedurazko bitartekoak barne.

Edozein hitzarmenen edo Protokolo alboanitz ez murriztaileen segurtasuna hitzarmenaren gai eta helburuarekin bateraezina egingo lukeen oinarritzko salbuespen bat ezarriko balitz soilik eragingo lioke, Vienako 1969ko Konbentzioko 19. artikuluaaren arabera.

Azkenik, nire ordezkariak (1966ko Nazioarteko Zuzenbide Batzordearen hitzak aipatzen ditut) "hitzarmen baten eraginkortasuna zein segurtasuna bermatzeko beharrezkoa da hainbat Estatuek harekin bat egitea, xedapen gehienak onartuz". Gure ustez aniztasuneko, aldaketazko eta ohiko kontzeptuei erronka botatzen zaion garai honetan, xedapen honek ahalik eta adostasunik handiena bilatzen zuen eta bitarteko alboanitz batean gauzaturik, nazioarteko komunitatearen zuzeneko beharrei erantzuteko egokiena izan daiteke. Izan ere, "baimen gaitu" bat onartzen du eta nazio mailan salbuespenek eragiten zuten baldintza murriztaileak saihesteko bidean dago. Konpromiso eraikitzailea dela eta, nire ordezkariak ez zuen adostasuna hautsi nahi izan baina 17. artikulua onartzeak gerorako aurrekaririk ez duela jarri behar azpimarratzen du.

MAROKO

Marokoko ordezkariak Protokolo honetako xedapenen interpretazioak Marokoren subiranotasuna eta bertako balore moral eta espiritualak guztiz errespetatuko dituela esan nahi du, baita xedapen horiek Marokoko Konstituzioarekin bateragarriak diren ala ez.

HERBEHEREAK

1. Herbeheretako ordezkariak, onartu berri dugun Hautazko protokoloaren zirriborroak oinarri legal sendoa ezartzen duela uste du emakumeak diskriminatzeko edozein era saihesteko

Batzordeak (CEDAW) emakumeen eskubideak babesteko garaian bere lan-esparrua zabal dezan.

Hautazko protokoloan biltzen diren gaztigu eta ikerketa prozedurak bitarteko garrantzitsuak dira aurretik egin diren nazioko eta nazioarteko giza eskubideek erakutsi duten bezala. Prozedura horiek oinarri eta esanahi trinkoagoa ematen diote konbentzioko xedapenei gehien behar duten kasuetan.

2. Giza eskubideen inguruko beste nazioarteko itun-liburukien jarduna kontuan hartuz, gure ordezkaritzaaren ustez begi-bistakoa da 4. artikuluko 2. paragrafoko iii azpiparagrafoan biltzen diren onarpen irizpideak (guztiz funtsgabeak edo oinarri nahikorik gabekoak) gaztiguak Konbentzioko xedapenekin bat etorri behar direla dioen 4. artikuluko 2. paragrafoko ii azpiparagrafoan laburbiltzen den onarpen irizpide orokorraren ilustrazio zehatzak direla.

ZEELANDA BERRIA

Zeelanda Berria Hautazko protokoloa onartu delako poztu egiten da.

Zeelanda Berriak 2. artikulua inguruan berak egiten duen interpretazioa agertu nahiko luke.

Gure iritziz, artikulua hau gaur egunean erabiltzen diren gaztiguaren igortze-prozeduren inguruko giza eskubideen beste itunak ikuskatzeko ardura duten organo batzuei erreferentzia eginenez interpretatu beharko litzateke.

FILIPINAK

Nire ordezkaritza harro eta eskerturik dago lan hau amaitu delako. Hala ere, ez gara gure herrira garaipen mezuak bidali dituzten taldeetako partaide. Hautazko Protokoloa hau lortzeko saiakera eta ahalegin guztiak onartzen ditugun arren, Malawiko ordezkariak hain ondo adierazi duen eta Afrikako ordezkaritza kezkatzen duen 2. artikuluari buruzko kezka berdina daukagu.

Hau esanda, Hautazko Protokoloa dagoen horretan onartzen dugula azpimarratu behar dugu, emakumeen Konbentzioak objektiboki indartzen duelako, emakumeentzako eskubide-urratze larri eta sistematikoei buruz CEDAWaren arreta erakartzeko prozedura eraginkorra dela uste dugulako eta zalantzarik gabe aurrerapauso bat delako emakumeen giza eskubideen jurisprudentzian.

Hautazko Protokoloaren oinarritzko alderdiei dagokienez, nire ordezkariak ondorengo puntuak azpimarratu nahiko lituzke:

1. Giza eskubideen itunak ikuskatzeko ardura duten organoek azaltzen duten prozedura-araubideetako jardunaren arabera ulertzen dugu 2. artikulua. Artikulu horretan, egile baten justifikazioa gizabanako baten edo gizabanakoen talde baten izenean ekiteko, emakumeen bizitzaren egoera hartu behar du kontuan: emakumeen bizitza pribatu zein publikoko murriztapen eta oztopo politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak. Egiturazko murriztapen hauen eraginez, emakumeak bere eskubideak guztiz erabili ezin dituen egoera batean aurki dezake bere burua, eta are gutxiago krisialdi edo larrialdi batean bere baimena ematekoa. Horregatik, egile batek biktima baten izenean ekiteko arrazoirik lukeen egoeren interpretazio zabala hartu dugu, adibidez:

- Emakumeak alfabetatugabeak direnean eta beraien burua ordezkatzeko lege-gaitasunik ez daukatenean;
- Atxilotuta edo konfinatua badaude;
- Tratu txarrak, mehatxuak edo errepresaliak jasotzeko arriskua dutenean.

Erreklamazioa gizabanako baten izenean edo gizabanako talde baten izenean aurkezten bada, Gobernu kanpoko erakunde baten bidez egin daitezke jada emakumeen giza eskubideak herrialde desberdinetan babesten eta defendatzen ari diren emakume talde baten edo giza eskubideen organizazio baten bidez.

2. 8 (1) artikuluari buruz, "larri" hitzak ez duela sistematiko esan nahi ulertzen dugu eta ez duela handia hitza baino ñabardura gehiago eskaintzen.

3. Bai 2. artikuluan zein 8 (1) artikuluan, Konbentzioak bere osotasunean bildutako edozein eskubide urratzeak xedapen eta betebeharrak guztiei eragiten dietela ulertzen dugu eta ez zati bati soilik, bereziki 2-16. artikulua eta 24. artikulua.

Une oro, gobernuen izenean bildu garen arren, nire ordezkariaren iritziz ahaleginok gure herrialdeetako emakumeei eskaini dizkiegu eta batez ere, babesik gabe dauden emakumeei, baztertutakoei, zapalduakoei eta isilpean egotera behartuta daudenei.

Amaitzeko, azken urteotan informazio baliotsua luzatuz eta aurrera jarraitzeko indarra emanez gure alboan izan ditugun emakume taldeen eta Gobernu Kanpoko Erakundeen lana miesten dugula esan nahiko genuke, baita gure esker ona adierazi ere.

ERRUSIAKO FEDERAZIOA

Errusiako ordezkariak bat egiten du emakumeak diskriminatzeko era guztiak ekiditeko Konbentzioaren Hautazko Protokoloaren proiektuaren adostasunarekin.

Era berean, 17. artikulua bere horretan geratzen bada, zailagoa izango da talde askok Hautazko Protokoloa berrestea eta horrenbestez, emakumeen eskubideak benetan eta unibertsaiki babesteko eraginkortasuna izugarri txikituko da.

TUNISIAKO ERREPUBLIKA

Eskerrik asko Lehendakari anderea, nire herrialdearen izenean gure onarpena eta esker ona adierazi nahi diot lehendakariari eta koordinatzailea taldeburu duen lan-taldeari Emakumeak diskriminatzeko edozein era saihesteko Konbentzioaren Hautazko Protokoloaren adostasuna lortzeko egindako ahaleginengatik.

Tunisiak, honakoa azpimarratzen du: Protokoloa garrantzitsua dela emakumeen eskubideak finkatzeko eta errealitatean gauzatu beharko litzatekeela uste du berdintasuna lortzeko eta gizon-emakumeek aukera berdinak izan ditzaten. Tunisiaren ustez, Protokoloa onartzea Estatu guztien konstituzio legalitatea errespetatzen den heinean soilik izango da bideragarria, baita berauen nazio subiranotasunaren errespetu mantentzen den artean ere.

Tunisiako Estatuak lehendakari andeari hitzaldi hau saioaren aktan eranstea eskatzen dio.

BRITAINIA HANDIKO ETA IPAR IRLANDAKO ERRESUMA BATUA (BAITA SUEDIAREN IZENEAN ERE)

Erresuma Batuko eta Suediako ordezkariak izenean hitz egiteko ohorea daukat.

Protokoloko 6. artikuluko 1. paragrafoak honakoa esan nahi da: gizabanakoa edo gizabanakoak Estatu sinatzaileari nortzuk diren esan nahi ez diotenean, Batzordeak ez du gaztigu hori aintzat hartu behar Protokoloko 2tik 7ra arteko artikuluen arabera.

Noski, Batzordeak gaztigu horretan jasotako informazioa kontuan har dezake beste funtzio batzuetarako erabilgarria dela iruditzen bazaio, adibidez Protokoloko 8. artikuluan eta Konbentzioko 20. artikuluan bildutakoak.

Alemaniko ordezkariak gaur Europako Batasuneko Estatu guztien izenean eta Europako Batasunera elkartuak dauden Europa Zentraleko eta ekialdeko Europako Estatuaren izenean nahiz adierazpen honetan adierazitako beste ordezkariak batzuen izenean ere. Aipatutako ordezkariak izenean honako oharrak eransteko ohorea agindu didate:

Beste ordezkaritzen adierazpenak jakin-min handiz entzun ondoren kasu ugari aipatzen direla-eta harrituta gaude. Poztu egin gara gehiengoak emakumeen eskubideak bermatzeko Hautazko Protokolo honek beste bitarteko batzuetan biltzen diren giza eskubideen bermerako prozedurak bezain eraginkorrak direla pentsatzen duelako. Gehienek xedapen horiek jada indarrean dauden bitartekoetan oinarritzen direla uste dute eta prozedurazko araubidearen arabera nahiz giza eskubideen inguruko itunak ikuskatzeko ardura duten organoen jardun eta esperimentziaren garapenaren arabera interpretatu beharko liratekeela.

Gure iritziz, bere funtzioen baitan, CEDAWko Batzordeak giza eskubideen nazioarteko garapenari mesede handia egingo dio.

AMERIKAKO ESTATU BATUAK

Estatu Batuek salbuespenei dagokien 17. artikulua beraian sortzen duen kezka sakona adierazi nahiko lukete. 17. artikulua Protokoloa berresteko oztopo bat da eta salbuespen egoiak azaltzearen aurkakoa.